

artekka



JCDecaux
VILLE DE PARIS MONTMARTRE
OPÉRATION
**TRANQUILLITÉ
VACANCES**
! SIGNALEZ
VOTRE
ABSENCE
INSCRIVEZ-VOUS EN LIGNE
OU DANS UN DES POSTES DE POLICE :
Police Nationale 13 rue Charles-Floquet
Tél. : 01 41 39 49 00
Police Municipale 29 rue Fernand-Sinclair
Tél. : 01 47 52 44 46
Plus d'informations sur villedeparis.fr

ERREPRESIOAREN SU OLINPIKOA



— **H** izpide ditugun kirol-ekitaldiak, egiaz, laborategi sozial handi bat dira, eta kontrol sozialeko teknika garatzea ahalbidetuko duten datuak ateratzea dute helburu. Hau da, burgesiak klase-borrokan proletalgora menderatzeko dituen tresnak dira. Kirolarekiko maitasunagatik balitz, ez litzateke antolatuko segurtasunerako arriskutsutzat jotzen den ekimenik. Hiri-metropoli handietan ere ez lirateke egingo, horrek arazo asko sortzen baititu. Eta horrela egitearen arrazoia da metropoliaren hiri-eremua gerra zibil latente baten etorkizuneko gudu-zelai gisa hartzen dela.

Edukia

6

EDITORIALA

Arteka

**Esperimentu sozial
handiak**

10

ERREPORTAJEA

Eneko Carrión

Aberatsen jokoak

24

KOLABORAZIOA

Xermin Etxeberri

**Frantziako aparatu
errepresiboa sasoi
olinpikoan da**

40

ELKARRIZKETA

Irati Zubizarreta

**“Kirolak, berezko helburu
baino gehiago, langile-
klasearen barruko
kooperazioa sustatzeko
tresna izan beharko luke”**

54

IRITZIA

Beñat Astiz

Hesi-metalikoak

56

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Imanol Kañamares

**Olinpiar Jokoak: iragana,
oraina eta etorkizuna**

Esperimentu sozial handiak

Editoriala

Hautagai guztiak lehiaketa moduko batera sartzen dira, eta frogatu behar dute euren estatuak beharrezko baldintzak betetzen dituela kontzentrazio-esparru handi bat abian jartzeko, eta bertan esperimentu sozial bat egiteko

Urte guztiak bezala, hau ere etorkizunera igaroko da, eta Eurokopako titulua eskuratzeko balio izan zuen golarengatik edo Olinpiar Jokoetako anfitrioiak izan zen herrialdeagatik oroitu dute. Izan ere, beroarekin batera ohikoa den bezala, masak ur handitan murgilduko dira urteko hiri-ekimen garrantzitsuenean.

Ekitaldiaren alde aurrekoak oso interesgarriak eta argigarriak izaten dira: halako ekimenak euren mugetara erakartzeko asmoz estatu handiek euren artean izaten dituzten eztabaidek erakusten dute, hain zuzen ere, kontu kontingenteak direla futbol zelaian edo atletismoko pistan gertatzen direnak; oso garrantzi txikikoak. Hautagai guztiak lehiaketa moduko batera sartzen dira, eta frogatu behar dute euren estatuak beharrezko baldintzak betetzen dituela kontzentrazio-esparru handi bat abian jartzeko, eta bertan esperimentu sozial bat egiteko.

Jakina, herrialde anfitrioiak bete beharreko baldintzek lotura estua dute ekimen horiek gauzatzeko gaitasunarekin. Horregatik, tamaina horretako ekimen bat antolatzeko eskatzen diren baldintzek asko esaten dute haien izaerari buruz: ez dute axola futbolarekiko gustu onak edo atleten merituak, edo herrialde batean edo bestean kirol jakin batek duen errotzeak, garrantzitsuena egitate soziala bera gauzatzeko gaitasuna izatea da, eta ezarritako helburuak betetzen dituela bermatzea. Horregatik, herrialde anfitrioiak aukeratzean, erabakigarria da ekimen horiek antolatzeko behar besteko segurtasuneko, koertzioko eta kontrol sozialeko plan bat izateko gaitasuna.

Hori logikoa da, noski. Zentzugabea litzateke Olinpiar Jokoetan horien eta kirolaren arteko erlazioren bat bilatzea. Edo, agian, onartu beharko litzateke kirola deiturikoa horixe dela: egitura sozial jakin bat eratzekeko elementu kulturala. Jarduera fisiko soil bat baino zerbait gehiago da, edo, are, jarduera kolektibo baten barruko lehiakortasuna baino zerbait gehiago. Nolanahi ere, diogun bezala, ikusirik eskatzen diren baldintzek zerikusi handiagoa dutela ekimen sozialarekin haren ustezko edukiarekin (kirolarekin) baino, alderantziz ulertu beharko genuke agian: kirola aitzakia da, benetako edukiaren bitarteko itxuraldatu bat.

Hori horrela ez balitz, ekitaldi horiek ez lirateke antolatuko. Ezta diruagatik ere. Enpresen eta estatuen etekin ekonomikoak, garrantzitsuak badira ere, ez dute berez justifikatzen ekitaldi horien antolaketa. Ez da nahikoa. Ekitaldi horien izaerak pentsarazten digu ez kirolak ez diruak ez dutela behar bezala jasotzen haien benetako helburua, haien benetako edukia: kontrol soziala, diziiplina soziala... azken batean, burgesiaren klase-borroka proletalgoaren aurka.

Ikusirik eskatzen diren baldintzek zerikusi handiagoa dutela ekimen sozialarekin haren ustezko edukiarekin (kirolarekin) baino, alderantziz ulertu beharko genuke agian: kirola aitzakia da, benetako edukiaren bitarteko itxuraldatu bat

Ekitaldi horien benetako ekarpena izan ohi da, hain justu, segurtasun-neurri, lege eta protokolo berriak ezartzea, milaka pertsona lekualdatzea eta espazioa gizarte- eta hiri-arloan berregituratzea... Hau da, klase-borroka eremu kualitatibo berritu batean hedatzea, kirolaren eta kirolaz segurtasun osoz gozatzeko eskubidearen aitzakiarekin

Jakina, edonork ikusten ditu ikuskizun sozial horiek mugitzen dituzten diru-kantitate izugarriez. Inork ez du zalantzan jartzen onuradunak nortzuk diren, eta horien artean politikari mordoa dagoela. Baina ekitaldi horien benetako ekarpena izan ohi da, hain justu, segurtasun-neurri, lege eta protokolo berriak ezartzea, milaka pertsona lekualdatzea eta espazioa gizarte- eta hiri-arloan berregituratzea... Hau da, klase-borroka eremu kualitatibo berritu batean hedatzea, kirolaren eta kirolaz segurtasun osoz gozatzeko eskubidearen aitzakiarekin.

Hori horrela ez balitz, ekimen horietako batek ere ez luke inolako zentzurik izango. Enpresarien eta politikarien etekin ekonomikoak azal dezake, beharbada, estatu jakin bateko burgesiak zergatik izaten duen ekitaldi baten anfitrioi izateko bat-bateko bultzada, baina ez du inola ere azaltzen zergatik antolatzen diren halako ekitaldiak behin eta berriz mundu mailan. Burgesiaren burmuin kolektiboak haren zati nazional bat aberastea baino zerbait gehiago bilatzen du: hori gertatzen jarraitzeko baldintzak inposatzea bilatzen du, hau da, proletalgoak menpeko klasea izaten jarraituko duen klase-borrokaren esparrua zehaztea. Egitate politiko batek azaltzen du (mendekotasuna) aukera ekonomikoa (proletalgoa esplotatuz burgesia aberastea). Proletalgoaren mendekotasunaren eta klase-borrokaren teoriarik gabe, ezin dugu ulertu klase-esplotazioaren errealitate ekonomikoa.

Beraz, hizpide ditugun kirol-ekitaldiak, egiaz, laborategi sozial handi bat dira, eta kontrol sozialeko teknika garatzea ahalbidetuko duten datuak ateratzea dute helburu. Hau da, burgesiak klase-borrokan proletalgoa menderatzeko dituen tresnak dira. Kirolarekiko maitasunagatik balitz, ez litzateke antolatuko segurtasunerako arriskutsutzat jotzen den ekimenik. Hiri-metropoli handietan ere ez lirateke egingo, horrek arazo asko sortzen baititu. Eta horrela egitearen arrazoia da metropoliaren hiri-eremua gerra zibil latente baten etorkizuneko gudu-zelai gisa hartzen dela.

Ekimen horiek burgesiaren gerra-makineria hobetzeko xedez eragindako masa-ekitaldiak dira, makineria hori egokitzen dutenak proletalgoaren gaur egungo klase-osaerara (proletario deserrotua, lanaldi partzialeko lana duena edo langabe kronikoa dena, hiri handietan pilatuta dagoena eta sindikatuetan afiliatzeko edo egitura formal legeztatuetan elkartzeko aukerarik ez duena...), bai eta proletalgoaren potentzia subjektiboetara ere (komunistek lurralde-antolaketa hedakorra dute aukera bakar gisa, hau da, espazioaren kontrolagatiko gerra irekia).

Hori dela eta, masen portaerak datu bidez prozesatzea ahalbidetuko duten kongregazio sozialak eta jarrerak bultzatzen dira, errepresioaren eta kontrol sozialaren makineria hobetzeko. Azken batean, burgesiaren ikuspegitik, ekitaldi horiek klaseen arteko gerra baten simulatzen dute proletalgoaren klase-osaerarekin bat datorren forma modernoan.

Hain zuzen ere, horregatik dira prozesatutako datu asko espazioko jarrerari eta portaera fisikoari buruzkoak. Horrekin, mugikortasun sozialaren nolabaiteko araudi bat lortu nahi da, aukera emango duena etorkizunean metropoli kapitalistaren barruan izan daitekeen gerra estrategiko batean masek izan ditzaketen jarreraren antzeko mugimenduak aztertzeko. Halako ekimenek bultzada zientifiko bat dakarte masen psikologia aztertzeko eta kontrol sozialerako mekanismo egokiak garatzeko, bizi dugun garaira egokituak, hau da, krisi kapitalista kronikoko eta miseriazko garaietara, klase-antagonismoaren areagotzearen eta iraultza sozialaren mehatxuaren garaiotara egokituak. ●

ABERATSEN JOKOAK

Testua — **Eneko Carrión**



Munduko kirol ekitaldirik garrantzitsuena Parisera iritsiko da, eta badirudi mundu guztia pozik dagoela, hura hasteko zain. Diotenez, ekitaldi horrek aukera handiak, aberastasuna eta ongizatea dakarkizkio Paris osoari. Horixe da komunikabideek, enpresek eta politikariek saltzen duten kontakizuna, errealitate soziala ezkutatzeko eta makillatzeko helburuarekin. Hainbesteko fartsaren eta hainbeste gezurren aurrean, gisa horretako ekitaldi guztiek Parisko proletarriotzan dituen ondorioak salatzea dagokigu. Horregatik, erreportaje honen helburua da aztertzea zeintzuk diren aipatzen diren onurak, nork jasotzen dituen irabazi horiek eta nork pairatzen dituen ondorioak.

HIRIA ETA KIROLA, DENA KAPITALAREN ZERBITZURA

Industrializazioak gure inguruko guztia aldatu zuen: hiri berriak, auzo berriak, kultur eredu berriak eta abar sortu zituen. Gizarte industrialaren agerpenak gure bizimodua moldatu zuen. Baina zentro inperialistan industria pisu ekonomikoa galtzen hasi zenean, gure hiriak ere aldatu egin ziren. Kez eta lantegiz betetako hiriak izatetik aisialdiko eta kontsumoko parke tematiko izatera igaro ziren. Zenbait egilek *disneyfikazio* deitu diote horri. Fase fordistari lotutako metatze-patroiek (ekoizpen masiboa; eskulanaren espezializazioa eta sinplifikazioa; Estatuaren esku-hartze orokorra) “metaketa malgurako” eredu egokiagoak sortu zituzten (merkatu berri eta espezializatuagoak; eskulanaren errotazio handiagoa; ingurune konplexuetako zereginak; balio-kateen globalizazioa eta konplexutzea; Estatu pribatizatzailea eta liberalizatzailea); horrek, aldi berean, gure ingurunearen eraldaketa eragin du. Garrantzi berezia du azpimarratzeak Estatuak eta bere erakunde publiko “zoragarriek” zer rol esanguratsu betetzen duten hiri-espazioaren eraldaketan. Arlo publikoaren defendatzaileek alde batera uzten dute, askotan, horrek etekin pribatuarekiko duen mendekotasuna eta, ondorioz, baita duen izaera kolaboratzailea ere. Historikoki, enpresarien eta momentuko gobernarien premiei lotuta egon dira hiri eraldaketak. Eta erakunde publikoek hainbat arau, proiektu eta ekimen gauzatu eta garatu behar izan dituzte hiri-espazio unean uneko behar ekonomikoetara egokitzeko¹¹.


Paris mendekotasun publiko-pribatuaren adibide garbia da. XIX. mendearen erdialdean, Napoleon III.

Historikoki, enpresarien eta momentuko gobernarien premiei lotuta egon dira hiri eraldaketak

aren agintepean, Haussmann baroiak hiri eraldaketa batzuk egin zituen Frantziako hiriburuan. Finantzari handiek eman zuten eraldaketa horiek egiteko laguntza, hala nola Pereire anaiek, kreditu-erakunde berriak sortuz. Eraiste-politika eta eraikuntza masibo horiek gabe, ez genuke gaur egungo Argiaren Hiria ezagutuko. Baina interes ekonomikoak lotuta daude helburu politikoekin eta hertsadurarekin ere, nahiz eta askok baztertu egiten duten ideia hori. Hiri-diseinuaren helburua zen bulebarrak zabalduz tropen eta artilleriaren mugimendua erraztea; horrez gain, kuartelak eraiki nahi zituzten leku estrategikoetan, langile-klasea eta Parisko herria kontrolatzeko. Antzeko adibidea dugu Francoren diktaduran Leioako campusa (EHU) eraiki zutenekoa. Kasu horretan, diseinuaren eta kokapenaren helburua da Poliziaren esku-hartzea erraztea eta ikasle mugimendua hirietako langile-mugimendutik bereiztea.

Merkatuak etekin-bilaketa etengabea inposatzen du, eta erakunde publikoek prozesu hori lagundu eta erraztu behar dute. Egiturazko logika horren eraginez, hiriak merkatu-nitxo bihurtzen dira. Turismo, kirol eta musika ekitaldi handiek enpresariak aberasten dituzte; eta, bitartean,

politikariak, nola ez, harro agertzen dira, antolatzaileak erakarri eta konbentzitu izanagatik. Enpresariak pozik beren onurekin, politikariak handiputz beren "lorpenekin", eta erdi-mailako klasea zorioneko, oporretarako plan berri bat duelako. Bitartean, proletarioek gordinki jasaten dituzte mota guztietako indarkeria eta prekarietatea. Beren auzoetatik kanporatuak, baldintza kaskarretan (askotan hilgarrietan) lan egitera kondenatuak eta, gainera, kriminalizatuak dira, aipatutako ekitaldi horien aurrerapena eta haiek dakartzaten hamaika onurak ez onartzea leporatzen baitzaie. Pairatzen dugun etengabeko pobretzearen ondorioz, horrelako ekitaldiak eta horiek dakarten guztia ontzat hartzen ditugu ("hau ezer ez izatea baino hobea da"). Ekitaldia amaitu ondoren, hedabide eta politikari guztien ahotan ibiltzen da hark hirira ekarrarazi dituen milioien zifra. Noren onurarako da, ordea? Eta zeren kontura? Porrot politiko eternalaren ikuspegi politikoaren ondorioz, ez gara ezer planteatzeko gai izan gaitz erditik haratago. Dena da konformismoa, onarpena eta etsipena. Ikus dezagun zer ekarri dioten eta zer ekarriko dioten Olinpiar Jokoek Frantziako hiriburuari.




Turismo, kirol eta musika ekitaldi handiek enpresariak aberasten dituzte; eta, bitartean, politikariak, nola ez, harro agertzen dira, antolatzaileak erakarri eta konbentzitu izanagatik

PARISKO JOKOAK ZIFRATAN


Jokoen eragina aztertzen hasi aurretik, Frantziako eta, zehazki, Parisko egoera sozialari erreparatu behar diogu, haien eragina hobeto ulertu ahal izateko. Frantzia tentsio sozial handiko gunea izan da, etxebizitzaren eta elikaduraren garestitzea, pobrezia-areagotzea eta neurri autoritarioen aplikazioa direla eta. 2000 eta 2018 artean, higiezinaren prezioak hirukoiztu egin ziren. Ondoko grafikoak erakusten duen bezala, pobrezia arriskuan dauden kopuruak gora egin du Frantzian azken urteetan: pobrezia-tasa %15,6koa zen 2022an.

Parisko metropoli-eremuak 14 milioitik gorako biztanleria du, Frantziako biztanleriaren ia %20. Pertsona asko *banlieues* deituriko auzoetan bizi dira; auzo horiek 1960 eta 1979 artean sortu zituzten, landatik etorritako langileek eta kolonietatik iritsitako biztanleek aterpea hartzeko. Auzo txiro horietan, klase- eta etnia-gatazka asko gertatzen dira. Biztanleriaren erdia urtean 11.250 euro baino gutxiagorekin bizi da, eta gainerako biztanleek baino hiru aldiz aukera gehiago ditu langabezian egoteko. Adibidez, Clichy-sous-Boisen (Parisko metropoli-eskualdea) hamar biztanletik zazpi pobrezia-aren atalasearen azpitik bizi ziren eta gazteen langabezia tasa %40koa zen 2013an. Gainera, auzo horiek herrialdeko beste edozein guneri baino finantziario txikiagoa ematen die Estatuak.^[2]

Pobrezia arriskuan dauden pertsonen ehunekoa Frantzian (2008-2022)



Olinpiar Jokoen finantziario iturri nagusiak



Jokoak egoera ekonomikoa hobetzeko aukera gisa saltzen dizkigute, baina baita urte hauetan protesten ondorioz sorturiko segurtasun ezaren irudia hobetzeko ere.

Antolatzailea: NOB

Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB) "irabazi asmorik gabeko" erakunde pribatua da; berak antolatzen ditu Olinpiar Jokoak, eta Mugimendu Olinpikoaren jarduerak koordinatu. 1894an sortu zuen Pierre de Coubertin frantziarrak, Olinpiar Joko modernoaren sortzaileak. Jatorrian, NOB Europako, Amerikako eta Ozeaniako hamabi herrialdeetako hamabost kidek osatzen zuten. Gaur egun haren kide dira 101 kide aktibo, 45 ohorezko kide eta ohorezko kide bakar bat: Henry Kissinger, Estatu Batuetako idazkari ohi eta Bakearen Nobel sariduna.

Jokoen egoitza bihurtu nahi duten herrialdeek konpromisoa hartzen dute, idatziz eta NOBren aurrean, zenbait gastu egiteko azpiegiturretan, segurtasunean edo osasunean. Baina ez hori bakarrik. Adibidez, 2020an Madril egoitza izaten saiatu zenean, Espainiako botere publikoek honako konpromisoak hartu zituzten idatziz^[3]:

- Data berberetan antzeko beste ekitaldirik egongo ez zela bermatzea.
- Marka olinpiko guztiak babestea.
- Tasa eta zerga guztiak kentzea Olinpiar Jokotako beharrezko ondasunei zein horietan lan egingo zuten pertsoneri.
- Olinpiar Batzordearen balizko defizita bere gain hartzea.
- Beharrezko segurtasun eta osasun zerbitzua kosturik gabe uztea.
- *Ambush* marketina saihesteko legeria onestea (hau da, iragarkiak debekatzea Olinpiar Jokoen babesleei lehia egiten dieten markei, eta, horrela, NOBri ordaintzen dioten sponsez baliatzea).

- Kanpoko publizitatea kontrolatzea, garraio publikoan zein aireportuetan.
- Lehiaketa- eta entrenamendu-egoitzetako obrak finantzatzea.
- Instalazioak batzorde antolatzailearen esku jartzea, merkataritza-eskubiderik gabe.
- Garraio-azpiegituren gaitasunak hobetzea.

Behin egoitza lortuta, Jokoen finantzaketari heltzen zaio. 2022an egindako berrikuspenaren arabera, 2024ko Parisko Olinpiar Jokoen Batzorde Antolatzaileak lehiaketa abian jartzeko aurrekontuko diru-sarrerak 4.300 milioi dolar estatubatuarretik gorakoak izan ziren. Gainera, Joko Olinpikoaren diru sarreraren iturri nagusiak ikus daitezke. Besteak beste, babesle nagusien artean dira Airbnb, Alibaba, Allianz, Atos, Bridgestone, Coca-Cola/Mengniu, Deloitte, Intel, Omega, Panasonic, P&G, Samsung, Toyota eta VISA.



Sustatzaileek modu abstraktuan hitz egiten dute aberastasuna sortzeaz, eta ezkutatu egiten dituzte sektore publikotik pribaturako transferentziak. Horren froga dira eraikitako zein utzitako azpiegiturak edo ekitaldi horietan aplikatzen diren zerga-salbuespenak

Aipatzekoa da paperaren gainean NOB irabazi asmorik gabeko erakundea dela jartzen badu ere, kritika handiak jaso dituela bere opakutasunagatik. Zuzendarien esanetan, zuzeneko soldatarik jasotzen ez duten arren, kopuru handiak jasotzen dituzte konpentsazio gisa. Adibidez, 2015ean, Thomas Bach NOBko presidentea 225.000 euro jaso zituen. Eta ofizialki jasotzen dutenaz haratago, frogatu da egoitza aukeratzekoan zuzendarietako asko egon direla nahasita eroskeria handietan.^[4]

Urteko ekitaldi inportanteena

Jokoak badatoz, eta politikari zein hedabide guztiek hitzetik hortzera darabiltzate ekarriko dituzten onurak. CaixaBank erakundeak, besteak beste, Jokoen ekonomian izango duten eragin positiboa defendatu du.

Jokoen 150.000 lanpostu sortuko dituztela aurreikusten da, baina inork ez du baldintzei buruz hitz egiten. Dena estatistikak apaintzeko. Boluntariora-programa handia ere ez digute aipatzen; horren bidez, doan lan egingo dute 45.000 lagunek, eta hiribururako bidaia eta ostatua beren

patrikatik ordaindu beharko dituzte^[5]. Horrez gain, herrialde antolatzaileak erlojupeko lasterketa egiten ari dira dena prest egon dadin, eta erabat ahaztu dute lan segurtasuna. *The Guardian* egunkariak 2021eko otsailean egindako ikerketa baten arabera, gutxienez 6.751 langile etorkin hil ziren 2010 eta 2020 artean Qatarren egin zen munduko futbol txapelketari lotuta. Baina askok uste dute benetako kopurua seguruenik askoz handiagoa izango zela. Era berean, mahai gainean jartzen dute 1.900 zerbitzu-hornitzaile beharko direla Pariserako, eta osotara Jokoen 350.000 emisio-ordu izango dituztela telebista emanaldietan, hau da, milioika euro irabaziko dituztela publizitatean. Guztira, aurreikusten da kirol hitzordu horrek Frantziako ekonomian izango duen eragin ekonomikoa 10.700 milioi eurokoa izango dela 2017-2034 bitartean; horietatik 3.500 milioi turismorako izango dira eskusiboki. Milioika horiek nortzuk eramango dituzten aipatzea ez da beharrezkoa. Sustatzaileek modu abstraktuan hitz egiten dute aberastasuna sortzeaz, eta ezkutatu egiten dituzte sektore publikotik pribaturako transferentziak. Horren froga dira eraikitako zein utzitako azpiegiturak edo ekitaldi horietan aplikatzen diren zerga-salbuespenak. Adibide argia eta hurbila dugu Bilbon ospatzekoa zen Eurokopa. UEFAk aitortu zuen Espainiako Estatuari zerga-salbuespena eskatu ziola kirol ekitaldia egiteko baldintza gisa. 2018an, Espainiako Ministroen Kontseiluak dekretu bat onartu zuen, eta, hari esker, erakundeek ez zituzten ordaindu beharko sozietateen gaineko zerga, pertsona ez-egoiliarren gaineko zerga eta PFEZa.

ONDORIOAK

Kontuan izan behar dugun lehenengo gauza datuen erabilera interesatua da. Eragin ekonomikoari eta lanpostuen sorrerari buruzko zifra guztiak estimazioak dira, eta garai batean Bartzelonan gertatu zen bezala, datu errealak askoz ere txikiagoak izan daitezke estimatutakoak baino. Ordea, datuetatik haratago, Parisko biztanleriarentzat benetako ondorioak zeintzuk diren ikusi behar dugu.

Enplegua sortzeaz hitz egiten digute, baina ez haien baldintzen inguruan. Lanpostu gehien zerbitzuen sektorean sortuko dira, eta, hartan, soldata txikiak, lanaldi ikaragarri luzeak, presio handiko lana, lan-segurtasun txikia, iraupen laburreko kontratuak eta abar izango dituzte. Zenbait sektorek aurreikusia dute jadanik lan-kargaren igoera hori (adibidez zabor-biltzaileek); horregatik, lan-baldintzak hobetu ezean, grebara jotzearekin egin dute mehatxu ^[6].

Eta hori guztia prezioek esparru guztietan (elikadura, etxebizitza, garraioa...) nabarmen gora egiten duten testuinguru batean gertatzen da. Hiria aste batzuetarako turisten bizileku bihurtzen den bitartean, egunero bertan bizi diren pertsonen eskuratzeko ahalmena murrizten da. Eta horrek, azken urteotako garestitze orokorrarekin batera, hiriaren gentrifikazio-prozesuak areagotzea dakar. Proletarioek beren burua behartuta ikusten dute beren etxeak eta auzoak uztera, beste auzo eskuragarriago batzuetara bizitzera joateko. Bitartean, jabeak aberastu egiten dira alokairuak igoz edo pisu turistiko gisa erabiliz. Zenbait azterlanen arabera, aldi olinpikoan zehar erreserbatutako ostatuaren tarifa batez beste 323 eurokoa da gaueko. Beste adibide argi bat garraioa da; izan ere, garraio publikoaren tarifak nabarmen igoko dira Olinpiar Jokoetan. Adibidez, eguneko abonua 16,90 eurotik 32 eurora pasatuko da, eta astekoa 30 eurotik 70 eurora. Metroko eta autobuseko txartel indibidualen prezioak ere bikoiztu egingo dira: 2,10 eurotik 4 eurora pasatuko dira ^[7].

Negozio handiak, klientelismoa parrastaka eta proletarioen aurkako politikak bata bestearen atzetik. Ekitaldi hori sistemaren logika irrazionalaren beste adibide bat da, non behar sozialak beharrezkoak diren soilik irabaziak sortzeko balio badute

Hori guztia “segurtasunaren” izenean egiten diren hainbat neurri autoritarioren bidez gauzatzen da. Espazio publikotik desagertu behar da “polita” ez den eta erakarpen turistiko gisa salgarria ez den guztia. Horregatik, “garbiketa sozialerako” neurriak areagotu egin dira, hau da, etxerik gabeko pertsonak hiritik kanporatzeko neurriak. Horretarako, hesiak eta harri handiak jarri dituzte hiriko leku askotan. Neurri puntual bat izatetik urrun, Parisen etorkizuneko irudiaren parte izango da hori. Eta horrek guztiak eta herrialdeko segurtasun nazionalaren aurkako mehatxuek kaleak masiboki militarizatzea eragin dute: 45.000 polizia zainduko dute Jokoen inaugurazio-ekitaldia, eta hainbat eremutarako sarbideak QR kodeen bidez kontrolatuta egongo dira.

Horixe da Jokoen errealtatea. Negozio handiak, klientelismoa parrastaka eta proletarioen aurkako politikak bata bestearen atzetik. Ekitaldi hori sistemaren logika irrazionalaren beste adibide bat da, non behar sozialak beharrezkoak diren soilik irabaziak sortzeko balio badute. Denbora gutxi falta da Paris gozamenerako leku bilakatu dadin gutxi batzuentzat, eta Kapitalaren erregimenaren peko miseriarako kondena beste askorentzat. ●

**ERREFERENTZIAK**

[1] Castro Martínez, E. de J. Contribución al pensamiento de David Harvey: La lógica del capital en la producción del espacio urbano.

[2] El Orden Mundial - EOM. ¿Qué son las banlieues francesas? Lotura: <https://elordenmundial.com/que-son-las-banlieues-francesas>


[3] Olympics, Paris 2024. “Juegos Olímpicos Paris 2024: Cómo convertirse en voluntario”. Enlace: <https://support.olympics.com/hc/es/articles/4958135498515-C%C3%B3mo-puedo-ser-voluntario-en-Par%C3%ADs-2024>

[4] Libre Mercado. “El COI y las olimpiadas: un ‘negocio’ de 8.000 millones de dólares”. Enlace: <https://www.libremercado.com/2013-03-21/el-coi-y-las-olimpiadas-un-negocio-de-8000-millones-de-dolares-1276485402/>

[5] RFI. (2024, 14 de mayo). En París, los basureros amenazan con ir a la huelga durante los Juegos Olímpicos. Lotura: <https://www.rfi.fr/es/francia/20240514-basureros-amenazan-con-ir-a-la-huelga-durante-los-juegos-ol%C3%ADmpicos>

[6] Idealista News. (2024, 25 de abril). París se colapsa de pisos turísticos a pocos meses de los JJOO 2024. Lotura: <https://www.idealista.com/news/inmobiliario/internacional/2024/04/25/816854-paris-se-colapsa-de-pisos-turisticos-a-pocos-meses-de-los-jjoo-2024>

[7] France 24. (2024, 23 de abril). ONG denuncian limpieza social en París de cara a los Juegos Olímpicos. Lotura: <https://www.france24.com/es/programas/en-foco/20240423-ong-denuncian-limpieza-social-en-par%C3%ADs-de-cara-a-los-juegos-ol%C3%ADmpicos>



FRANTZIAKO APARATU ERREPRESIBOA SASOI OLINPIKOAN DA



Testua — **Xermin Etxeberri**
Irudia — **Fanny Schlichter**



Badirudi dena prest dagoela 2024ko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoen irekiera-ekitaldirako. Uztailaren 26tik aurrera, Sena ibaiak hartuko ditu Jokoak, ekitaldirako espreski garbitua izan ondoren. Baliabide guztiak jarri dira martxan ezerk ez dezan huts egin eta, horretarako, besteak beste, hasierako aurrekontua handitu dute, eta Olinpiar Jokoetarako diseinaturiko segurtasun-arloko legedi berria ezarri. Baliabide sorta izugarri bat, hainbat konturekin koroaturik: hildakoak lan-istripuetan, gustagarriak ez diren bizilagunak periferietara lekualdatzea edota ekosistemen hondatzea. Ezer ez da gehiegizkoa eta dena da gutxiegi festibala asean eta betean atera dadin. Jokoetara edonor joaten ahalko da, betiere ehundaka euro ordaintzeko prest badago sarrera merkeenengatik^[1].

Bien bitartean, olinpiar sua, Frantziako Estatuko hirietan zehar mugitzen ari delarik, bere gar errepresiboarekin erretzen ari da ekitaldia edo Estatuko politikak zalantzan jartzera ausartzen den edozein. Guri saltzen saiatu diren festa ustez herrikoi, jasangarri eta inklusibo honek geroz eta gutxiago konbentzitzen du jendea. Jende gehienak dagoeneko badaki balio olinpikoak korporazio kapitalista handien eta Estatuaren interesekoak direla proletalgoaren interesekoak baino gehiago.

Jokoen ondoren ere biziraunen duten salbuespen neurri horiek, gainera, nomenklatura berria jaso dute Jokoen komunikazio taldeari esker: “Olinpiar Jokoen ondarea”

Olinpiar Jokoak kirolak bigarren mailako papera duen makroekitaldi horietako bat dira. Fatxada besterik ez dira, mota askotariko enpresa handientzako interes ekonomiko eta finantzarioen sarea ezkututzen dutenak: gertakariaren babesle handiak, telebista-talde handiak edota eraikuntza-, higiezin- eta segurtasun-industriak. Olinpiar Jokoak erakustoki ere badira herrialde anfitrioiarentzat, hark ekitaldia aprobetxatzen baitu munduari ongizatearen eta egonkortasun sozialaren irudia saltzen saiatzeko. Frantziako barne segurtasunari buruzko Liburu Zuriak ezin lezake argiago adieraz: “2024a segurtasunaren erakusleihu izan behar da”^[2].

Erakusleihu bat eraikitzearen abantaila da aukera dagoela saldu nahi den hori soilik erakusteko. Krisi kapitalistak eta haren eredu sozialaren suntsipen mingarriak kolpaturiko herrialde batean, geroz eta gehiago dira ezkutarazi nahi dituzten kontuak. Ekitaldirako beraz, fokutik at mantentzen saiatuko dira miseria sozialaren eta protesta gorakorren eztanda. Alabaina, ezerk ezin du beldurtu Frantziako makineria burokratiko-militarraren aparatu tekno-polizial eta legegilea, are gehiago modernizatu baita horretarako, segurtasun industria gorakorrak lagunduta.

Artikulu honetan, horretan zentratuko gara, eta, zehazki, kiroleko makroekitaldi horien aitzakian oro har herritarren kontrol sozialean eta bereziki militante politikoen kontrolean are gehiago sakontzeko nola erabiltzen dituzten landuko dugu, Olinpiar Jokoen rol inportantea betetzen baitute erreforma autoritarioen bizkortzean. “Talka-estrategien” antzera jokatzen dute, hau da,

gertaera traumatiko baten ondoren Estatuaren kontrol gaitasuna sendotzeko erabiltzen diren erreformen onarpen soziala lortzeko. Jokoen kasua zelatatze neurri eta teknologia berri ugariarekin esperimintatzeko erabiliko da, baita haien erabilerak zilegitasun soziala erdiets dezan ere. Saltzen digute haien erabilera denboran mugatua dagoela eta justifikatua dagoela, gertakizun berezia den aldetik. Dagoeneko baina, ondotxo dakigu salbuespen den hori ia beti norma bihurtzen dela. Jokoen ondoren ere biziraunen duten salbuespen neurri horiek, gainera, nomenklatura berria jaso dute Jokoen komunikazio taldeari esker: “Olinpiar Jokoen ondarea”.

Artikulu honen xedeak betetzeko, lehendabizi azken edizioen eta berrikuntza autoritario ugarien, espazio publikoaren militarizazioaren eta onartu dituzten eskubide-urraketen laburpen motz bat eginen dugu. Horrela, jarraian 2024ko Olinpiar Jokoen kasu konkretuari erreparatuko diogu.



AURREKO URREZKO DOMINEN IRABAZLEAK

Ez dugu Jokoetako aurreko edizioetan abiaraziriko neurri autoritario ororen azterketa sakona egin nahi; lerro hauetako xedea da erakustea Olinpiar Jokoek nola ahalbidetu dien herrialde antolatzaileei beren aparatua errepresibo eta kontrolatzaileak modernizatzea. Halaber, agerian utzi nahi dute egitate bat dela Olinpiar Jokoek modua eman dutela sistematikoki salbuespenak hutsetik txertatzeko bake garaietan.

Nolympics Anywhere nazioarteko kolektibo antiolinpikoak Jokoetako aurreko edizioetako material ugari du Jokoen xehetasunetan gehiago arakatu nahi duenarentzat^[9]. Beren analisiari esker, 90eko hamarkadan Bartzelonako (1992), Atlantako (1996) eta Sydneyeko (2000) edizioekin hasitako joera bat ikus dezakegu, foku mediatikoa miseriatik aldentzea normalizatzeko balio izan duena, egoera hori ezkutatu eta Estatuaren begietara gustagarria ez den populazioa periferietara lekualdatuz. Era berean, populazio hori bera zelatatze-sistema indartuen eta berrituen xede bihurtzen ari da.

Salt Lake Cityko (2002) Jokoek, baina batez ere Atenaskoek (2004) eta Pekingoek (2008), joera horren indartzea ekarri zuten. Aipaturiko Joko horiek 2001eko irailaren 11ren ondoren Estatu Batuek kanpo-politikan “terrorismoaren aurkako gerrarantz” egin zuten alaketatik gutxira egin ziren. Jakina da terrorismoa mehatxu denean ez dagoela alferrikako segurtasun-neurririk. Kontaketa ofizial horren pean, egiaz, neurriek nagusiki disidentzia eta berregituraketa kapitalista lazgarriak ekarritako protesta soziala menderatzeko balio dute.

Jokoak beren sorterrira, Greziara, itzuli zirenean 2004an, behin betiko sendotu zen Olinpiaden eta neurri autoritarioen arteko lotura: segurtasun-aurrekontua 1.400 milioi dollarrera igo zen, okasiorako 40.000 agente baino gehiago mobilizatu zituzten, eta 1.000 zelatatze-kamera baino gehiago jarri. 2008ko Pekingo edizioan bultzada hori mantendu zuten, eta etengabeko errepresioa erabili zuten haserrea adieraztera ausartzen zirenen kontra. Vancouverreko Neguko Olinpiar Jokoek hartu zuten haien erreleboa, 2010ean; haietan, bake garaietan sekula martxan jarritako operazio militar handiena jarri zen martxan. Aireko, lurreko eta itsasoko armadek parte hartu zuten, eta 900 milioi dolarretako kostua izan zuten.

Denok ezagutzen dugu Anaia Nagusiaren egilearen aberria zenbateraino erakartzen duten zelatatze-teknologiek, Londres munduko hiririk zelatatuena baita sekulako kamera kopuruarekin. Hala, 2012ko Olinpiar Jokoek aukera ezin hobea eskaini zioten. G4S enpresarekin –hastapenetan segurtasunaz arduratzekoa zen enpresa– izandako desadostasun baten ondorioz, Londresek inprobisatu egin behar izan zuen azken unean, eta hasierako segurtasun aurrekontua lehertarazi zuen. Kirol-instalazio oro tiratzaile profesionalak inguratu zuen, armadaz jabetu zen eta armak konfiskatu zituen, hala nola Eurofighter Typhoonak eta lurretik airerako misilak, eta haiek Parke Olinpikotik hurbil jarri. Ondotik, Sotxiko Olinpiar Jokoetarako, Errusiak ere lurretik airerako misilak mobilizatu zituen, bai eta 70.000 militar eta agente ere.

Bartzelonako, Atlantako eta Sydneyeko edizioekin hasitako joera bat ikus dezakegu, foku mediatikoa miseriatik aldentzea normalizatzeko balio izan duena, egoera hori ezkutatu eta Estatuaren begietara gustagarria ez den populazioa periferietara lekualdatuz. Era berean, populazio hori bera zelatatze-sistema indartuen eta berrituen xede bihurtzen ari da





2016ko Rioko Joko Olinpikoek, bestalde, jendea faveletatik botatzeko bidea ireki zuten. Horrela, Rioko Jokoak milaka pertsona etxetik bota eta are babesgabeago utzi zituzten Joko gisa gogoratuko ziren.

Adibide adierazgarrien aukeraketa arbitrario honi amaiera emateko, ezin dugu Japoniako kasua ahantzi. Japoniako Gobernuak Tokioko ekitaldia probestu zuen aurretik zenbait alditan porrot eginiko konspirazio-aurkako lege bat onartzeko. Ez da harritzekoa lehenago onartu ez izana, testuak oinarritzko zigor-printzipio baten aldaketa jasotzen baitzuen. Printzipio horren arabera, asmo bat, bere horretan, ezin da delitu penal izan baldin eta ez badu atzetik delitu materialik. Tokioko Jokoak ere tristeki ezagunak izan ziren aurpegi-ezagutzako sistemen erabileragatik. Saccage2024 kolektiboak salatzen duenez –Parisko Olinpiar

Jokoen aurka antolatzen da–, 2028an Los Angelesen eginen diren Jokoen mota horretako teknologien normalizazioa eta erabilera are gehiago handituko dute, marketinerako argudio moduan ondorengo leloa erabiliz, gainera: “zure aurpegia izanen da zure sarrera”.

ALTUAGO, ARINAGO, INDARTSUAGO

Badirudi Frantziak Estatuaren eguneratze autoritarioan Jokoen lelo bera hautatu duela: geroz eta altuago, arinago eta indartsuago aritzearena. Azkenengo urteetan argi ikusi ditugu Estatuaren militarizazioa, kontrol sozialerako teknologia poliziala, proletalgoaren eskubide politikoen aurkako lege-ofentsiba, kolektibo militanteen desegitea eta auzoetako edo proletalgo migratzailearen kontrako salbuespen-araubideak martxan jartzea. Tentsio inperialistak,

Terrorismoa mehatxu nagusia denean, ez dago alferrikako segurtasun-neurririk. Kontaketa ofizial horren pean, egiaz, neurriek nagusiki disidentzia eta berregituraketa kapitalista lazgarriak ekarritako protesta soziala menderatzeko balio dute

osoa ez ezik eta Ingalaterra ere ministro hori gorrotatzera iritsi zen ^[4]. Alabaina, 2023ko Errugbiko Munduko Txapelketak arrakasta handiagoa izan zuenez, exekutiboak lasai hartu zuen arnasa, Jokoetarako ongi prestatu egonen dela kontsideraturik. Baina zenbateraino prestatu da Frantzia Joko Olinpikoetarako?

SEGURTASUN LEGEA EDO LEGE OLINPIKOA

Olinpiar eta Paralinpiar Jokoei buruzko 2023ko maiatzaren 19ko legean hezurramitzen da batez ere “Paris 2024” ^[5]. Segurtasun lege berri horrek aurretiko segurtasun legeetan onartu gabeko xedapenak barne hartzen ditu, Segurtasun Globaleko legearenak, esaterako. Ez onartzearen arrazoia ez zen hutsala: lege horren artikulua txapeldunak, 7.ak, bideozaintza algoritmikoaren baliapena (VSA, frantsesezko sigletan) onartzen du kameretan eta droneetan.

Zertan datzan azaldu aurretik, beharrezkoa da egungo kameraren erabilera-sistema laburki errepasatzea. Egun, kameretatik datozen bideo seinaleak tokiko agintaritzaren baten mailan eta hiri-zaintzarako zentro gisa (CSU frantsesezko sigletan) ezagutzen denaren barruan zentratzen dira, besteak beste. Fluxu horiek zaintza-agente batek jaso eta tratatzen ditu, eta beharrezkoa den kasuetan, polizia ohartarazten dute ekintza susmagarri edo delituzko bat gertatzen ari dela ikusten badute.

matxinadak auzoetan, abian den berregituraketa kapitalistak sorturiko protesta indartsuak... gobernuari ez zaio aitzakiarik falta ordenaren eta seguritatearen beharra justifika dezan. Gainera, eskuin muturraren babes ideologiko eta politikoa ditu, eta eskuinak geroz eta eragin handiagoa du eta boteretik gero eta gertuago dago. Olinpiadak, hortaz, aukera bat dira prozesu honetan sakontzeko eta berriz auzitara ateratzeko neurri izugarri autoritario batzuk, iraganean gorte goren burgesak zentsuratu egin zituztenak presioaren eraginez.

Hain zuzen, Frantziar estatuak ez du tinko agertzeko eta ordenaren aurkako atentatu oro erreprimitzeko abagunerik galduko. Are gutxiago 2022ko otsaileko Txapeldunen Ligako finalaren oroitzapen mingotsa Barne Arazoetako ministroaren kontzientzian oraindik bueltaka dagoen honetan; izan ere, Frantziar herrialde

Segurtasun lege berri horrek aurretiko segurtasun legeetan onartu gabeko xedapenak barne hartzen ditu, Segurtasun Globaleko legearenak, esaterako. [...] bideozaintza algoritmikoaren baliapena onartzen du kameretan eta droneetan

VSA teknologia lan horren automatizazioan oinarritzen da, eta, horrekin batera, gizakiaren laneren inperfekzioak konpontzen saiatzen da. Teknikoki, makineria kameretatik eta droneetatik datu kantitate handia prozesa dezan trebatzean datza –ikasketa automatikoa– jarrera susmagarri batzuk automatikoki bereiz ditzan –ordenagailu bidezko ikusmenaren bidez–, eta, horrela, alerta bat aktibatzeo gai izan dadin. Agintariak definituko dute zein diren jarrera susmagarriak, eta ingeniariak erabaki horien arabera programatuko dituzte makinak. Jarrera horien artean daude, besteak beste, geldirik dauden pertsonen identifikazioak, “ezohiko” taldeak edota jabetza pribatuaren urraketak. Jakina, espazio publikoaren erabilera desagokiaren definizioa arbitrarioa da. Izan ere, dirudienez A puntutik Bra mugitzeaz haratago doan edozer susmagarria izan liteke, adibidez, kalean egotea bera. Horrek manifestazio eskubidea urratzen du, argi eta

garbi. Izan ere, taldean gelditzea edo mugitzea *de facto* susmagarria bihurtzen bada, teknologia horrek manifestaziorako eta bilkurarako eskubide politikoaren kontrako erabateko eraso ekarriko du, ezinezkoa izanen baita indar errepresiboen kontroletik at manifestatzea. Lege horren bitartez, espazio publikoaren erabilera mugimendu hutsera estandarizatzen eta murrizten da, eta eskubideak mugatzen ditu, are gehiago kalean bizi eta lan egitea beste erremediorik ez dutenen kasuan.

VSA etengabeko ikaskuntzan oinarrituko da, eta, beraz, formak eraginkortasun handiz ezagutzen ahalko dira eskuratutako irudien bidez. Aurpegi-ezagutzako kameretatik desberdintzen duena da ez duela norbanakoen aurpegiak identifikatzen, baina bai gorputzeko formak, norbanakoen mugimenduak, objektuak eta janzkera.

Bi teknologiak, nahiz eta ez datozen bat puntu konkretu horretan eta gobernuak ukatzen eta ezkututzen saiatzen diren, zelatatze biometrikorako balio dute, eta, beraz, horrela kontsideratu beharko lirateke. Bideozaintzaren arloan, kamera biometrikoak eta errealitate areagotuko kamerak edo kamera adimendunak desberdintzen dira. Lehenengo kamera-kategoriaren ezaugarria da halakoek izaera fisikoko, fisiologikoko eta jarrerako datuak trata ditzaketela, eta, hortaz, norbanako jakin bat identifikatzeko gai direla. Bigarren kamera-kategoriaren kasuan, tratamendu automatikoak ez luke ahalbidetu behar norbanako jakin bat identifikatzea. Alabaina, La Quadrature du Net elkarteak, VSARI buruz eginiko txostenean, hau dio: “teknologia honek denbora osoan zehar gorputzak, ezaugarri fisikoak, keinuak, siluetak eta ibilkera identifikatzen, analizatzen eta sailkatzen ditu, eta horiek guztiak datu biometriko ukaezinak

dira”^[6]. Hau da, kontrol biometrikorako sistema bat ere bada VSA. Xehetasun esanguratsua da: izan ere, Europako Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, paperean behintzat, oso zorrotza da norbanako bat identifikatzeko erabil daitezkeen datu delikatuak tratatzeko orduan. Hala ere, Frantzia zelatatze biometrikoko sistema bat txertatu duen Europako lehen herrialdea izan da, sistema behin-behinekoa dela eta “abandonaturiko objektuak edo jende saldoen mugimendua” kontrolatzeko ezinbestekoa dela argudiatuta.

Hala eta guztiz ere, La Quadrature du Netek dio orokortu eginen dela, eta lehenago legez kanpo erabiltzen zen gailu baten hedapen masiboa besterik ez dela izanen: “VSA isilpean hedatu da azken urteotan, eta gehiengoarentzat ezezaguna den teknologia bat da. Enpresek sotilki garatu eta saldu dute, lekuko agintaritzek informatu beharrik gabe instalatzen da, eta bizilagunei beren hirian instalatzen den horri buruzko informazioa ezkutatzaren zaie. Adibidez, Briefcam Israelgo enpresaren softwareak, Frantziako 200 udalerrri baino gehiagotan isilpean jarri denak, aukera ematen du ezaugarrien araberako bilaketak egiteko (arroparen kolorea, txanoa, poltsa, janzkera eta pertsonaren uestezko sexua), hiriko kamera guztien bidez pertsonak miatzeko, eta, are gehiago, ‘aurpegiak elkarrekin konparatzeko’. Azken horrek bideo-sekuentzien bitartez aurpegi identifikatua bilatzeko aukera ematen du”. Teknologia horretatik aurpegi-ezagutzara (jadanik erabiltzen da aurrekari penalen fitxategian dauden pertsonentzat) pauso bat besterik ez dago.

Bideozaintza lege eta gailuen ildo beretik, “Drones 2” izeneko lege polemikoa hein batean Jokoen presioaren kariatara ere onartu dela gogoratu behar dugu. Droneen erabileraren bidez, espazio publikoaren kontrola are gehiago indartu da manifestazioak eta mugak zelatatzeo.

Lege olinpiko horretako artikulu problematikoen arteko zilarrezko domina 11. artikuluar dagokio, 300 pertsona baino gehiago barne hartzen dituzten estadioetako eta beste kirol, aisialdi edo kultur esparruetako sarreretan gorputz-eskanerraren erabilera ahalbidetzen baitu. Eskaner horrek pertsonak hiru dimentsiotan bistaratzen ditu, hau da, beren arroparen azpian ezkututzen dutena erakusten du. Intimiteate- eta pribatutasun-eskubide honen urraketa proportzionatutzat hartzen da, hura erabiltzeko beharrezkoa baita eragiten dien pertsonen “berariazko baimena” lortzea, hau da, erabiltzaileak onartzen badu bakarrik erabil daiteke. Baina gorputz-eskanerra egin diezaiotela

ukatzen duena, hala ere, behartzen ahalko dute haztapen-kontrol bat egitera, eta, gainera, lekuetara sartzeko besteok baino gehiago itxaron beharko du. Hain justu, teknologia hori kontrolak bizkortzeko eta ilarak saihesteko baliogarria dela esanez ere justifikatzen da.

Era berean, legea bi delitu berri ezartzeko baliatu da, Jokoen ondoren delitu izaten jarraituko dutenak: bata lehendik kirol-instalazio batean legez kanpo sartu izan diren horiek zigortzekoa izanen da, eta bestea zelaira salto egiteagatik edo lehiaketa gune batera sartzegatik zigortzekoa. Kirol ikuskizunak ahalik eta gehien leuntzeko eta edozein aldarrikapen politiko kentzeko beste saiakera bat da, batez ere hintxak seinalatzen dituen. Azkenik, segurtasun urraketa larriak egiten dituztenei guztiz debekatuko zaie estadiorako sarrera.

Polizia-neurri administratiboak

Zaleen otzantasuna are gehiago kontrolatzeko antzeko beste neurri bat zaleen guneetan eta Jokoen perimetroen barreneko ekitaldi handietan parte hartzen dutenen inguruko ikerketa administratiboak egin ahal izatea da. Ikerketa administratibo horiek, printzipioz, segurtasun eta defentsari edo Estatuko beste misio batzuei lotutako sektore jakinetan lan egin nahi duten pertsonen bideratuak daude. Neurri hori Jokoen parte hartu nahi duten guztiengana hedatuko da. Gaingiroki, ikerketa horiek egiteko, fitxategiak erabili ahalko dituzte, pertsona bat segurtasunerako arriskutsua den ala ez erabakitzeko.

Halaber, oroitu behar dugu, Frantziako legediak manifestazioen beto orokorrak debekatzen dituen arren, zuzi olinpikoaren Frantziako Tourragatik manifestazio kopuru handia debekatu dituztela inpunitate osoz. Ildo beretik, zuziaren ibilbidean zehar, edozein aldarrikapen, kartel edo pankarta debekatu da, eta Jokoen zehar ere debekatuak izanen dira. Hala ere, babesle handiek askatasun osoa izanen dute beren publizitatea monumentu publikoetan erakusteko. Gainera, litekeena da lehiaketa-esparruaren barnean guztiz debekatua egotea manifestazio bat antolatzea.

Azkenik, Jokoen zehar Parisen mugitzeko derrigorrezkoa izanen da QR kode bat izatea. Horretarako, lehenago izena eman behar da plataforma digital batean, informazio pertsonala eman. Adibidez, irekiera-ekitaldia aire librean ospatuko da, Senaren ertzean, eta, horregatik, inguruko eremu osora sartzeko beharrezkoa izanen da QR kodea erabiltzea.

Espazio publikoetako kontrol poliziala

Saccage2024 kolektiboak informatu du 35.000 polizia, 20.000 militar eta segurtasun pribatuko 22.000 guardia inguru mobilizatuko direla egunero lehiaketaren bi asteetan zehar, huskeria baten truke: 295 milioi euro. Faktura nabarmena bada ere, aurreko edizioekin konparaturik arraroki baxua denez, litekeena da hurrengo asteetan fakturek gora egitea. Bestalde, garraioko segurtasunera bideratutako polizia kopurua bikoiztuko dutela ere iragarri dute, 77 unitate berri sortu baituzte^[7].

Segurtasun pribatuaren auziak arreta merezi du gure hausnarketan. Baiki, geroz eta pertsona gehiagok jotzen dute segurtasun pribatuko enpresen zerbitzuetara. Ordainduz gero polizia-zerbitzu pribatuak eskuratzeko modua da segurtasun pribatua. Are gehiago, Frantzian segurtasun osorako azken legedia indarrean sartu zenetik, segurtasun pribatuko guardiak geroz eta eskumen gehiago dituzte, eta gutxika-gutxika ordenaren agente tradizionalen antz handiagoa hartzen ari dira. Adibidez, denda batean lan egiten duen segurtasun guardia batek orain norbait atxiki dezake polizia iritsi bitartean. Dagoeneko areagotzen ari zen fenomeno hori, eta, orain, Olinpiar Jokoen eraginez, nabarmendu egingen da.

Gainera, Barne Arazoetako ministroak jadanik 600 drone ditu erosiak Olinpiar Jokoenetarako. Oso kontziente da gertaera urrezko aukera bat dela Frantziako armamentua eta segurtasun industria sustatzeko. Industriako adar horretako handikiak oso kontziente dira horretaz ere bai, eta legea kontrol-teknologia berriek ematen dituzten aukeretara egoki dadin presionatzeko, lobby baten inguruan antolatuta dira: GICAT (Frantziako defentsa-industriaren eta lurreko eta aireko segurtasunerako elkarte). Ezaguna dugu amarrua: teknologiak “segurtasun falta” gelditzeko nahikoa eraginkorrak ez izatearen arrazoia da legeak ez duela ahalbidetzen haien potentzial osoa erabiltzea; adibidez, zelatatze-kamerek ez dute funtzionatzen beharrezkoa delako haiek automatizatzea.

Saccage2024 kolektiboak ere argi utzi du politikarien eta segurtasun industriaren arteko kolaborazio hertsia. Politikari horiek aldi berean beldurraren merkataria eta salbatzaile gisa jarduten dute teknologia berrien ezarpenaren bidez. Horixe da Élancourt hiriaren kasua (bertan



eginen dira Olinpiar Jokoenetako lehiaketa batzuk), bertako agintariek kontratu bat sinatu baitute GENETECekin bideozaintza mota berriekin esperimentatzeko. Hiriaren xedea enpresaren “erakusketa bateko stand” bihurtzea ere bada, eta 2024rako komisaldegia moderno berri bat irekitzea espero da. Beste adibide bat Sant-Denis da; bertan, 2021ean Hiri Zelatatze Zentro (CSU) dotore bat ireki zuten. Azpiegitura teknikoa, egun 93 kamera dituen, abantzu % 340 handituko da 2024 bitarte, Olinpiar Jokoenetarako prestatzeko. Eta aukeratutako ordezkariak bideozaintzari adimen artifiziala ezartzeko asmoa dute, arau-hausteen erregistroa automatizatzeke.

Garbiketa soziala eta zigor makineria

Arestian esan bezala, helburua ez da Frantziaren irudia Jokoen zehar misera sozial geroz eta handiagoa erakusten duten irudiekin zikintzea edo herrialdeko politikariek zalantzatan jartzea. Paris 2024 zera da: klase-garbiketa. Azkenengo urteotan joan-etorri askerako eskubidean atzerakada nabarmena izan da, eta, gainera, horri gehitu zaio espazio publikoan egoteko eta geratzeko eskubidea geroz eta mehatxatuago dagoela, batez ere proletargoaren zati geroz eta handiago batentzat.

Has gaitezen duela urte batzuetatik Olinpiar Jokoen egiten diren hirietan ezartzen den “zero delinkuentzia” plana aztertzen. Plana auzo horietan

(berezi Seine-Saint-Denisen iparraldean) kontrolak areagotzean datza. Eta prefeturak bere burua zoriontzen du: “Delinkuentziaren aurkako borroka-operazio horiek 2024ko udara arte egonen dira martxan. 2023ko hasieratik, 871 operazio egin dira, 9.400 agente mobilizatu dira, 25.000 pertsona inguru kontrolatu dira eta 1.254 pertsona atzeman dira”. Horrek eremu horretan jarritako langile kopurua etengabe igotzea eta atxilotutako pertsonen kopurua bikoiztea ekarri du; beraz, bistakoa da delinkuentziaren aurkako dispositiboaren areagotze plana eragina izaten ari dela.

Praktikan horrek neologismo polizial berri bat ekarri du berekin, “delinkuentzia fisionomikoa”, eta espazioaren irudi dekadentea ematen duen orori aurre egiteko betebeharrari egiten dio erreferentzia. Hala, “aurpegiagatiko delitua” legezkatzen da nolabait, norbait bere itxuragatik interpelatzean oinarritzen dena, eta, orain arte, bistan da, legez kanpoko zena. Sentitzen dut antiarrazismoa balio olinpiko bat zela uste dutenei huts egitea.

Atxiloketa kopuruak gora eginez gero, makineria penalak ere gora egin behar du ezinbestean. Horregatik, 380 magistratu baino gehiago kontratatuak izan dira okasiorako, eta preso batzuk Normandiako kartzelara lekualdatzea aurreikusten da. Aurreikustekoa da paperik gabeko proletario migratzaileak arau-hauste arinengatik OQTF direlakoekin zigortzea, hau da, Frantziako Lurraldetik Irteteko Obligazioekin. Gainera, atxikipen administratiboko zentroak eraiki dira okasiorako. Hori gutxi balitz, eraikuntza enpresa handiek dokumentatu gabeko langile kopuru handia kontratatuko dute, gaizki ordainduta eta lan-arrisku handiarekin. Batzuetan baita legez kanpo ere; horixe gertatu zen Adidas Arenaren kasuan, zeinak langile migratzaileen greba arrakastatsua eragin baitzuen^[8].

Olinpiar Jokoen kalteak nozituko dituzten pertsona zaurgarrienen artean daude etxegabeak ere. Hotel sozialetan 5.000 pertsonarentzako lolkua itxi da diru-truke erabiltzeko. Gainera, etxegabeak beren hirietatik kanporatuak izan dira eta Frantziako beste hiri batzuetara lekualdatuak, batez ere Brestera, non soilik hiru asterako ostata eskaini zaien. Hiritik botatzeaz eta etxebizitza alternatibarik gabe uzteaz gain, jakina da Parisera itzultzea oso zaila izanzen dutela. Era berean, ikaslerik prekarioenak ere ez dira salbatu, Jokoen irau bitartean ikasle-egoitza kendu dietelako. Kontuan hartu Munduko Errugbi Kopa ere infernu bat izan zela ikasle txiroentzat, jabeek nahiago izan baitzuten pisu horiek lehiaketa-garaian prezio neurrigabeetan alokatu urte osoan zehar ikasle txiroei alokatzea baino.

Olinpiar Jokoen aurrekaririk gabeko aukera bat ekarri dute etxeen huste masiboaren bidez antiokupazio lege berria ezartzeko. Bereziki lazgarria izan da Unibeton etxe okupatuaren kasua, zeinak 500 pertsona hartzen zituen^[9]. Revers de la médaille kolektiboak argitaraturiko bizileku informaletatik etxegabetu dituzten pertsonen buruzko ikerlanaren arabera, 2023-2024 epean zehar 138 etxegabetze zenbatu ziren Île-de-France eskualdean; 2021-2022 epean, aldiz, 121. Besteak beste hauek izan dira etxegabetze horiek: 64 etxegabetze txabola-auzoetan, 34 etxegabetze kanpadenda-kokalekuetan (soilik Parisen eta Aubervilliersen), 33 etxegabetze etxe okupatuetan eta 7 nomaden artean. Etxegabetze horiek 12.545 pertsonari eragin zieten; hori %38,5eko igoera da 2021-2022 urteen aldean. Horietatik 3.434 adin txikikoak ziren, iazko kopuru bikoitza eta aurreko epeko ia hirukoitza^[10].

MARKAK HAUSTEN

Urtez urte, Jokoen edizio bakoitza lehiari aritzen da aurreko edizioaren kontrol sozialeko eta defentsa-auzietako berrikuntza teknologikoekin, ea nork irabaziko. Modernizazioak, inbertsioak eta langileen kopuru izugarriak lehiaketa esparruetatik haragokoak dira. Baina hori aztertu beharreko kontuetako bat besterik ez da.

Tamaina honetako makroekitaldiek testu honetan azaldu diren aferez haratago doazen arrakalak irekitzen dituzte gizartean. Jokoen eta antzeko gertaerek proletalgoaren esplotazioaren, opresioaren eta degradazioaren dinamika kapitalistan sakontzen dute, eta batez ere emakumeei, gazteei eta migrantei eragiten diete. Eszenatoki perfektua sortzen dute etxebizitzaren eskala handiko espekulaziorako; kontratu gabeko, eskas ordaindutako eta baldintza tamalgarrietako lanen normalizaziorako; zerbitzu sozialen kaskartzerako eta bizitzaren desnormalizaziorako, batez ere gizarteko kaparrik baxuetan.

Jokoen kirol-interesetik haratago, halakorik izanzen balute, ezin dugu onartu, gertatzen ari den legez, herrialde anfitrioiaren proletalgoaren bizi baldintzak bat-batean oker daitezen. ●



ERREFERENTZIAK

[1] Eztabaida piztu dute Joko Olinpikoak ikusteko sarreren prezio garestiak; izan ere 2.700 euroko sartzeak besterik ez dira salgai: https://www.francetvinfo.fr/les-jeux-olympiques/paris-2024/paris-2024-le-prix-exorbitant-des-billets-fait-polemique_5828273.html

[2] Frantziako barne segurtasunari buruzko Liburu Zuria: <https://www.interieur.gouv.fr/actualites/actualites-du-ministere/livre-blanc-de-securite-interieure>

[3] <https://nolympicsla.com/resources/>

[4] https://www.francetvinfo.fr/faits-divers/incidents-lors-de-la-finale-de-la-ligue-des-champions-2022/incidents-du-stade-de-france-en-mai-2022-l-uefa-va-indemniser-les-supporters-de-liverpool_6441973.html

[5] <https://www.legifrance.gouv.fr/dossierlegislatif/JORFDOLE000046777392/>

[6] <https://saccage2024.noblogs.org/files/2024/02/Presentation-saccagesV22024.pdf>

[7] <https://94.citoyens.com/2024/le-revers-de-la-medaille-denonce-une-augmentation-massive-des-expulsions-avant-les-jeux-olympiques-en-ile-de-france.04-06-2024.html#:~:text=À%2052%20de%20jours%20de,une%20année%20sur%20l'autre.>

[8] https://www.francetvinfo.fr/les-jeux-olympiques/paris-2024-comment-des-ouvriers-sans-papiers-ont-travaille-sur-des-chantiers-des-jeux_6240894.html

[9] <https://www.bondyblog.fr/societe/9-squat-unibeton-de-lile-saint-denis-les-jeux-dabord-les-gens-apres/>

[10] <https://www.laquadrature.net/wp-content/uploads/sites/8/2023/02/Dossier-VSA-2-LQDN.pdf>



**“KIROLAK,
BEREZKO HELBURU
BAINO GEHIAGO,
LANGILE-
KLASEAREN
BARRUKO
KOOPERAZIOA
SUSTATZEKO
TRESNA IZAN
BEHARKO LUKE”**



Mendi lasterketetako punta-puntako kirolaria da Irati Zubizarreta beasaindarra. Bost aldiz irabazi du Espainiako Estatuko txapelketa gazteen mailan, eta bi urrezko domina eta brontzezko bat lortu ditu munduko txapelketan. Berekin aritu gara kirol profesionalaz, enpresa babesleez, eliteko kirolaz eta kirolariez, kirol-ekitaldi erraldoiez, kirolaren funtzioez eta kirolak izan ditzakeen balioez eta potentzialaz, besteak beste.



Has gaitezen tartetxo batez zuri buruz hitz egiten. Noiz eta zergatik hasi zinen kirol honetan?

Irati: 2016an hasi nintzen mendi lasterketetan. Atletismoan aritua nintzen aurretik, baina baneukan intuizio bat edo konturatu nintzen atletismoa oso zentratuta dagoela marketan, errendimenduan, kronometroan, eta apur bat nekatu egin nintzen horrekin. Kirola egiteko era osasuntsuago bat aurkitu nuen mendian, edo, behintzat, eguneroko entrenamenduez gehiago disfrutatzeko moduko kirol bat. Gainera, konturatu nintzen gehiago gustatu ahala errazago aritzen nintzela, eta kirol batetik bestera salto egitea erabaki nuen.

Ibilbide horretan, hainbat enpresa, marka eta babeslerekin egon behar izan duzu harremanetan. Nola eragin du horrek zugaran?

Hainbat marka eta babeslerekin harremanetan egon naiz, haiek ahalbidetu didatelako kirol-produktuak eskuratzea, bidaiatzea eta zenbait aukera indibidual edukitzea. Baina egia da trukean onartu behar izan dudala nire irudia erabiltzea edo nire irudia esplotatzea ilusio faltsu baten baitan: kirolari egozten zaion askatasun faltsu hori.

Lehia horretan murgilduta zaudenean eta sare sozialek hauspotuta, indibidualismo handi bat eta aske izatearen irudi faltsu bat indartu daitezke, askotan ikusten dena mendiari lotutako jardueretan. Gerta daiteke, orduan, horretan bilatzea askatasuna, eta ez norberaren egoera erreala aldatzean.

Zentzu horretan, kontraesan bat aurkitu izan dut nire barruan. Nik beti disfrutatu izan dut kirolaz, eta iruditzen zait kirolak, modu egoki batean landuta, ekarpena egin diezaiekeela hainbat prozesuri. Pertsonen arteko elkartzasuna bultzat

dezake, naturarekiko harreman bat sor dezake, alderdi horrekiko heziketa bat eman dezake, eta osasuna bera ere bultzat dezake. Baina gaur egun daukagun gizarte-ereduan garatzen den moduan, hain zuzen ere, lehiakortasuna bultzatzen du; indibidualismoa, ihes egiteko joera... Eta nik, kirol horren figura publizitario bezala, nire aletxo jarri dut hori guztia bultzatzen.

Hori da nire barruan askotan sentitu dudana kontraesana. Marka batekiko loturak bai edo bai dakarrelako irudi hori eman behar izatea. Nolabait mugatuta zaude, zure iritzi propioa eta politikoa mugatuta daude.

Zenbaterainoko pisua daukate enpresa horiek goi-mailako kirolean? Hau da, aukerarik ba ote dauka kirolari batek, egunerokotasuneko kirol nolabait informaletik harago joan nahi badu, enpresa horien atzaparretatik ihes egiteko?

Profesionala izateko, gaur-gaurkoz ia derrigorrezkoa da zeure burua marka bati lotzea. Gaur egungo bekak, behintzat nik ezagutzen ditudan alorretakoak, oso txikiak dira, eta atleta ia guztiek daukate enpresa babesleren bat. Soldata era ezberdinetan jasotzen dute kirolariak, izan soldata zuzen modura, material modura, ordaindutako bidaia modura edo bonus soldata modura. Azken hori bakoitzaren errendimenduaren araberakoa da, hau da, emaitza jakin bat lortzean ematen dizute dena delako bonusa. Horrek kirolaria bere produktibitatearen menpeko bihurtzen du.

Orduan, ia derrigorrezkoa da edo behintzat markatzen den bidea da babesletza baten mende jartzea. Horrek berekin dakar kirolari batek ez duela soilik errendimendu altukoa izan behar: agente publizitario ona ere izan behar du. Ez da horren garrantzitsua zer nolako arrakasta lortzen duzun, baizik eta nolako

Zure emaitzak saldu behar dituzu, espektakulua sortzen duen soldatapeko langile bilakatzen zara, marka baten luzapen bat. Hori da zure erabilera-balioa

fokua jartzen diozun arrakasta horri. Zure emaitzak saldu behar dituzu, espektakulua sortzen duen soldatapeko langile bilakatzen zara, marka baten luzapen bat. Hori da zure erabilera-balioa, eta alde batera uzten duzu zure nortasuna.

Esan daiteke aipatzen ari garen elementu horiek badaukatela harremana gaur egun kirola ulertzeko dagoen moduarekin edo, bestela esanda, gaur egun kirolak dituen ezaugarriekin eta gizarte honetan duen lekuarekin. Zer funtzio betetzen du kirolak gaur egun? Eta, zehazki, zer funtzio betetzen du eliteko kirolak?

Kirolak gaur egun hartzen duen forma, esan dudana bezala, elkartzasunean oinarritzen den kirol-eredu bat izatetik oso urruti dago. Are, zalantzan jarriko nuke askotan mahaigaineratzen den paradigma hori: askok esaten du kirolak berezko balio batzuk dituela, adibidez, taldean jokatzeko jakitea. Baina nik uste dut hori gezurra dela hori, gaur egun kirola lehiara bideratuta baitago. Txikitatik bideratzen gaituzte horretara, errendimendura; eta horrek, asoziazionismo bat garatzeko baldintzak jartzetik urrun, edo behintzat langile-klasearen barruko harreman osasuntsu batzuk eta kooperazio bat garatzetik urrun, sekulako atomizazioa, indibidualismoa eta berekoikeria sustatzen ditu.



Langile-klasea obsesionatzen ari da kirolarekin. Baita norberaren gorputzarekin ere, eta mendekotasuna sortzen ari da punta-puntako produktuak, zapatilarik onenak eta elikadurarik onena eskaintzen dituen merkatuarekiko

Horrek bi ondorio ditu langile-klasearengan. Alde batetik, ihes egiteko joera indartzen da. Sozializatzeko beste edozein moduk bezala, kirolak funtzio hori betetzen du: lan-indarraren erreproduzioan eragiten du, gero lanpostura animotsu joaten laguntzen baitu. Baina kirolak, gaur egun, pisu handia hartzen du horretan. Are gehiago mendiak, aske izatearen irudipen faltsu bat eragiten baitu; zibilizaziotik fisikoki ateratzearen ondorioz, mendia erromantizatzen dute. Eta hori guztia, mendien suntsipena sistema beraren eskutik datorren bitartean.

Baina, beste alde batetik, langile-klasea obsesionatzen ari da kirolarekin. Baita norberaren gorputzarekin ere, eta mendekotasuna sortzen ari da punta-puntako produktuak, zapatilarik onenak eta elikadurarik onena eskaintzen dituen merkatuarekiko. Obsesio bat sortzen ari da horren guztiaren bueltan, eta, aldi berean, nor bere egoan gero eta gehiago murgiltzen ari da.

Horrek guztiak hainbat funtzio betetzen ditu. Lehenik eta behin, errealitatetik aldentzea eta despolitizazioa, bi zentzutan. Alde batetik, norberak kirola egiteak berak errealitatetik aldentzea eragiten du; esaterako, mendira joate hutsak norberaren egoera pertsonaletik eta laboraletik ihes egitea ahalbidetzen du. Baina, bestalde, aldentzea edo deskonektatzea diot, kirolak ikuskizun bat ere badakarrelako, eta kirol-ikuskizuna kontsumitzean,

aldendu egiten zarelako errealitatetik. “Herriaren opio” funtzio hori ere betetzen du, hortaz.

Bigarrenik, langile-klasearen frustrazioak kanalizatzen ditu kirolak. Hori oso argi ikusten da, adibidez, futbolaren kasuan. Jokalari bati errua botatzen zaio huts egiten duenean, eta egunerokoan pilatutako frustrazio dena harmailetan askatzen da.

Langile-klaseak garatutako forma ludikoaren ezabapena ere bada gaur egungo kirol-eredua. Kirola langile-klasearen eguneroko bizitzan txertatuta zeuden hainbat jokoren erregularizazioa da; arautze horrek Kapitalaren menpe jarri zuen. Federazioak eta elkarteak sortu ziren, eta langile-klaseak galdu egin zuen bere sozializazioaren gainean zeukan kontrol minimo hori.

Gainera, ezberdintasun sozialak naturalizatu ere egiten dira kirolean. Errendimendua lehen

planoan jartzen den heinean eta espektakulua gailentzen den heinean, ikuskizunik handiena eskaintzeko gai diren horiek hobeto baloratzen dira sozialki. Zentzu horretan, naturalizatu egiten da, esate baterako, horrenbesteko prestigiorik ez izatea emakumeen kirol askok, fisikoki muskulatura txikiagoa dutelako, edo aniztasun funtzionaleko pertsonen emaitzek. Eta horrek maila sozialera salto egiten du, gutxiespen sozial jakina naturalizatzen baita gizartean.

Aurrekoari lotuta, diskriminazioa dakar horrek. Kirola errendimendu horretara bideratuta egotearen eraginez, haurtzarotik da elementu diskriminatzaile. Hori garbi ikusten da txikitatik umeez hainbat kirolean aritzeko egin behar izaten dituzten sarbide-probetan. Probak gainditzen ez dituztenek ezin dute jokatu eta kanporatu egiten dituzte. Kanporatze horren islada ez da kirolera mugatzen, sozialki ere eragina du, estatus sozialean eta abarretan. Orduan, benetako begiratu bat emanez gero, konturatuko gara elite batek soilik parte har dezakeen esfera bezala dagoela antolatuta kirola. Ez dago era demokratiko edo inklusibo batean antolatuta, pertsona batzuentzako soilik dago gordeta. Horri, gainera, klase-esklusioa ere gehitzen zaio, proletalgoak ez baitauka sarbiderik puntako instalazioetara edo teknologiara.

Konturatuko gara elite batek soilik parte har dezakeen esfera bezala dagoela antolatuta kirola. Ez dago era demokratiko edo inklusibo batean antolatuta, pertsona batzuentzako soilik dago gordeta. Horri, gainera, klase-esklusioa ere gehitzen zaio

Eta, azkenik, patriotismoaren indartzea ere oso garbia da niretzat kirolean. Estatu-aparatuek beren eliteko kirolariak erabiltzen dituzte patriotismoa sendotzeko eta “estatua zer ondo doan” antzezteko.

Bai, Eurokoparekin ikusten da hori. Selektzio batek irabazten duenean, kolpean, badirudi inguruko gaitz eta arazo guztiak ahaztu egiten dituela jendeak.

Hori da. Orain Olinpiar Jokoetan ere ikusiko da hori. Espainiako taldea arituko da berriz, eta hori nazio-sentimendu bat indartzeko erabiltzen da, argi eta garbi. Baina nazio-sentimendu hori txalotzen ari garenean, zeharka *status quo* ari gara txalotzen.

Eliteko kirolariaren figurak sakontzea ere interesgarria da. Era batean edo bestean, marka baten protagonista izateak funtzio publizitario bat ematen duela aipatu dugu lehen, baina idoloek eta gizarteko erreferentzia zehatz batzuek ere hitz egin genezake.

Gizarte mailan, kirola bere forma amateurrean ikusten da nagusiki. Baina existitu behar dira, eraren batean, jarraitu beharreko eredu batzuk. Hau da, justuki, zenbait balio, guztiz kapitalistak, erreproduzituako direla bermatuko duten eredu horiek: meritua, sakrifizioa, produktibitatea, errendimenduaren maximizazioa... Azken finean, eliteko kirolarien funtzioa hori da: langile-klasearen baitan balio-sistema hori hegemonizatzea edo naturalizatzea, baita kirola era zehatz horretakoa izan behar delako ideia ere.

Zentzu horretan, nire ustez, eliteko kirolarien funtzio nagusia, eta nik kontraesan nagusi bezala sentitu izan dudana, funtzio despolitizatzailea da. Zergatik? Eliteko kirolariak inolako iritzi politikorik gabeko figurak izan ohi direlako. 24 orduz aritzen dira entrenatzen, pentsatzeko ia

Langile-klaseko kideak obsesionatuta bagaude gure gorpuzkerarekin, gure entrenamenduekin eta abarrekin, jakina, ez diogu denborarik eskainiko gure indibidualtasun edo ego hori gainditzen duen interes kolektibo bati

denborarik gabe, indibidualitatean murgilduta; beren egunerokotasunean, elikaduran, entrenamenduan, atsedenean, psikologoetan, fisioterapeutetan, instalaziorik onenetan eta abar. Dena mugitzen da horren inguruan.

Eta hori despolitizatzailea dela diot, horrelako bizitza-eredu indibidualista bat normalizatzen delako.

Indibidualismo horrek interes kolektibo oro zapuzten du. Langile-klaseko kideak obsesionatuta bagaude gure gorpuzkerarekin, gure entrenamenduekin eta abarrekin, jakina, ez diogu denborarik eskainiko gure indibidualtasun edo ego hori gainditzen duen interes kolektibo bati. Eta hori da egun kirolak betetzen duen funtzio nagusietako bat, sekulako atomizazioa eragiten duela.

Beste alde batetik, meritokraziaren ideia ere indartzen du eliteko kirolariak. Denok baldintza berdinetan jokatzeko dugulako ilusio faltsua hedatzen da; berdin da Hego Amerikakoa edo Norvegiakoa izan, nahiz eta hori ez den inondik inora horrela. Eliteko kirolari izatera heltzeko, baldintza zehatz batzuk bildu behar dira; ekonomikoak, familiari lotutakoak, sozialak... Mila aldagaik etorri behar dute bat kirolean maila goren horretara iristeko, eta, zentzu horretan, aukera-berdintasun faltsu bat irudikatzen saiatzen dira.

Niretzat beti izan da oso adierazgarria munduko txapelketetan, edo behintzat ni aritu izan naizen horietan, gertatzen dena. Nahiz eta,

jakina, ezin den konparatu munduko atletismo txapelketan gertatzen denarekin; nirea askoz ere esparru minoritarioagoa da. Baina, adibidez, mendiko lasterketa askotan Mexikoko selektzioa ez da existitzen, edo, agian, atleta bakarra aritzen da, guztia bere poltsikotik ordaindu ondoren. Orduan, zenbateraino hitz egin daiteke aukera-berdintasunaz, txapelketetan parte hartzea ezinezkoa bada hainbatentzat? Periferian bizi den proletalgoak, esaterako, ez dauka aukera-berdintasun errealki elitera heltzeko.

Beraz, errendimendu-maila jakin batera heltzeaz harago, esan dezakegu maila horretara heltzeko eta hori saltzeko moduak ere eragiten duela makineria bera behin eta berriro abiaraztean eta elikatzean. Hitz egin dugu jada kirolaren eta eliteko kirolaren funtzioez, baina beste galdera bati heltzea ondo legoke: nola agertzen dira kirol-munduan horren ohikoak diren tranpak (dopina eta askotariko eskandaluak) eta nola ulertzen dituzu horiek?

Aipatutakoaren ondorio zuzena eta logikoa dira tranpa horiek. Kirol-ikuskitzuna etengabeko errendimenduaren maximizazio batean oinarritzen bada, hau da, espektakuluak etengabe jarraitu behar badu, errendimenduak momentutik momentura igotzen jarraitu behar du. Ezin du sorgin-gurpil hori eten. Orduan, marka horiek, era natural



Dopina beharrezkoa da, kirol-eredu honek behar du; bestela, ikuskizuna hil egingo litzateke

batean, gizakiak garen neurrian, ezinezko bilakatzen dira momentu batetik aurrera; ezinezko bihurtzen da hazkunde etengabe hori.

Marka horiek hobetu ahal izateko, hortaz, hiru modu daude. Alde batetik, entrenamendua eta elikadura zientzia bidez hobetzea. Beste alde batetik, eskura ditugun produktuak hobetzea, hala nola zapatiletako karbono-plakak eta halako materialak lortzea, lehen debekatuta zeudenak. Eta, azkenik, dopina.

Produktu asko daude legaltasunaren linboan eta mediku espezializatuak daude leku guztietan. Hori ez da kasualitatea. Dopina beharrezkoa da, kirol-eredu honek behar du; bestela, ikuskizuna hil egingo litzateke.

Ez delako bakarrik maila gorenean egotea, baizik eta urtez urte maila hori igotzea, errekorrak apurtzea eta abar, makinak produzitzen segi dezan.

Hori da, bestela, dena erori egiten baita. Dena horretara mugatzen da, denbora guztian: espektakulua, espektakulua... Gainera, alor honetan, badago aipatzeko beste elementu bat. Badirudi askotan harrapatzen dituztela halako tranpetan Etiopiako, Keniako eta abarretako atletak; hau da, zentzu horretan aparatu sendo bat eraikita ez daukaten lurraldeetako pertsonak. Periferiako lurraldeetako kirolariak askoz gehiago jartzen dituzte ikusgai. Horrek kirol-munduko arrazismoan sakontzen du, kanpora begira ematen baitu afrikarrak baino ez direla dopatzen. Gainera, kasu askotan, salbamendu-tiket bat da eliteko kirola haientzat, biziraupen gordina.

Kontua da, berezko balio batzuk baino gehiago, potentzial bat duela kirolak; balio dezake edo ez, baina, beti ere, era jakin batean bideratuta badago eta jomuga jakin bat badu



Ari gara identifikatzen nola txertatzen den kirola gizarte-eredu zehatz honetan, eta inor harrituko ez bada ere, ustelduta dagoen mundu bat dela hori ere. Lehen aipatu duzu balio-sistema zehatz bat egozten zaiola kirolari berez, eta, ondorioz, ematen duela bultzatu beharreko zerbait dela bere horretan, pertsona-eredu zehatz bat sortzen duelako. Hori horrela al da? Zein da, edozein kasutan, kirolak hedatzen duen balio-sistema edo etika?

Berezko baliorik ez duela esango nuke, hasteko. Sozializatzeko modu bat da, eta momentu historiko konkretu bakoitzean forma bat edo beste hartzen du, gaur egun Kapitalarentzat funtzionala dena, jakina. Nik uste dut, beste forma batean, gorputz-jarduerak badituela onura batzuk; osasuntsua da mugitzea, eta era eraginkor batean antolatze bidean (are, Prozesu Sozialista bat elikatze bidean), badaude zenbait gako aprobetxa ditzakegunak.

Gorputz-jarduerak badaukalako, alde batetik, aipatutako individualismo horrekin hasteko potentzialtasuna. Elkarrekiko harremanetan sakontzeko bitarteko bat izatera hel daiteke, sozializatzeko modu bezala. Sozializatzeko erak sustatu behar ditugu, baina, nire ustez, alor horren kontrola geureganatu egin behar dugu. Hau da, kontua da, berezko balio batzuk baino gehiago, potentzial bat duela kirolak; balio dezake edo ez, baina, beti ere, era jakin batean bideratuta badago eta jomuga jakin bat badu. Ez dakit zer forma zehatz hartu beharko lukeen horrek, baina garbi dago egun ez duela halakorik sustatzen.

Sekulako engainua da kirolak berez hainbat balio sustatzen dituela esatea; diziplina, sakrifizioa eta antzekoak. Horrek Kapitalaren mundu-ulerkera naturalizatzen du. Kooperatibotasuna, elkartasuna, talde-lana eta abar aipatzen dira, baina, bereziki, errendimendua. Individualtasuna

jartzen da lehen mailan, eta hori da naturalizatzen dena. Horri buelta bat eman behar diogu.

Historikoki, horri buruzko eztabaida ezberdinak egon izan dira, interes handikoak. Batzuek defendatu izan dute lehiak individualismoa sortzen duela, beste batzuek, ez duela zertan horrela izan, eta ematen zaion norabidearen arabera dela harreman hori. Uste dut hor debate handia dagoela, baina, oraingoz, debate esentzialista bati heldu baino eta horrek hartu beharreko forma zehatza zein izango den eztabaidatu baino gehiago, sozializatzeko forma unibertsalista batzuk sortzen hasi behar gara, guk geuk kontrolatuko ditugunak, eta aipatutako elementu horiek desnaturalizatzei ekin.

Aipatu dituzu kirolak onurak dituela pertsonen osasunean. Eman dezake agerikoa dela osasuntsu egotea ez egotea baino desiragarriagoa dela. Baina, gaur egungo profilak oso muturrekoak direla eta, are, parametro berdinen barruan sar daitezkeela esan daiteke: batetik, erabateko sedentarisinoa eta osasunaren edozein noziotatik guztiz aldentuta dagoen bizi-estilo bat dugu, eta, bestetik, osasunaren ikuspegi eta itxura batekiko obsesioa. Zer hausnarketa merezi du horrek?

Kirol-eredu honek sustatzen duena ez da osasuna edo osasuntsu bizitzea, kontrakoa baizik. Eliteko kirolean garbi ikusten da: errendimendua guztiaren gainetik jartzen den momentutik, norberaren osasuna alde batera uzten da. Atletak askoren egoera ikusi dut nik; emakume askok jasan izan dugu hilekoa galtzea, elikadura-nahasmenduak ikusten dira...

Zergatik ikusten ditugu hainbeste psikologo eliteko kirolean? Agian, termino humanoenetan hitz eginda, ez da naturala mailarik altuenean aritu behar izatea hainbat urtez. Eta, gainera, gero zer? Protesi bat jartzea

da irtenbidea? Arreta jartzen badugu, eliteko kirolari asko beti daude lesionatuta. Naturala da egun bitik batean lesionatuta egotea? Eliteko kirolean garbi ikusten da dinamika hori, baina gizarte-mailan ere, orokorrean, ez dago orekarik.

Eta nola txertatzen dira zure ustez Olinpiar Jokoak edo Eurokopa eta gisako kirol-ekimenak, hau da, maila goreneko kirol-ekitaldiak, aipatutako horretan guztian? Zer da bilatzen eta lortzen dutena?

Kirol-espektakuluaren parte dira. Errealitate aldentea eta despolitizazioa bilatzen edo sustatzen dituzte halako ekitaldiek; frustazioen kanalizazioa, patriotismoa, eta kirolarekiko obsesioa. Azken finean, zure egunerokotasunean kirolari horien bizitzetan murgilduta baldin bazaude, era konkretu bateko bizi-eredua naturalizatzen duzu eta, gainera, eredu hori erreproduzitzeko joera batean sartzen zara, nahiz eta horrelako bizitza bat izateko baldintza materialik ez izan.

Bestalde, horrelako txapelketek aukera-berdintasunaren irudi faltsuan sakontzen dute. Olinpiar Jokoen mantra ere bide horretatik joan izan da beti: “mundu mailako bakea”, baina bake hori ez da existitzen.

Desertu, miseria eta dekadentzia testuinguru horretan sortzen den oasi moduko bat dira Olinpiar Jokoak. Jendeak horri begiratzen dio bere egunerokotasunetik ihes egiteko, eta bertara heldu nahi du etengabe. Baina, errealitatean, oasi horretako ateak ez dauden edonorentzat irekita.

Bai, gainera, horren guztiaren atzean egoa eta sozialki gora egiteko desira daude. Kirolak meritokraziaren mitoari erantzun izan dio beti, era kamuflatuago batean, arrakasta edozeinen esku dagoela irudikatzen baitu, benetan horrela ez izan arren.

Elkarrizketaren amaierara heltzen ari gara. Apurka-apurka kirolak eman ahalko lukeenaz hausnartzea nahi genuke, nahiz eta zantzu batzuk aipatu dituzun jada. Baiezta dezakegu, askok defendatzen dutenaren aurka, kirola ez dela gizarteko baldintza orokorretatik salbu dagoen alor bat, eta gizartearen despolitizazioari egiten diola mesede egun. Posible ikusten al duzu kontrako norabidean arraun egingo duen planteamendu batean pentsatzea?

Nire ustez bai, posible da. Lehen pausoa da kontzientzia hartzea kirolak gaur egun duen izaera diskriminatzaileaz, osasunarekin duen lotura ezaz eta abarrez. Esan dugun bezala, kirola sozializatzeke modu bat da, eta elkarrekiko harremanak sustatzeko potentzialtasuna dauka. Baina, horretarako, proletalgoak bat eginda egon behar du, ez baitauka gaur egungo federazio, elkarte eta instalazioen gaineko kontrolirik.

Gure kontrolpeko formak jorratu beharko genituzke, betiere prozesu politiko bati ekarpen bat egiteko asmoz. Kirolak, berezko helburu baino gehiago, langile-klasearen barruko kooperazioa sustatzeko tresna izan beharko luke. Gure bizitzan gaineko kontrola eskuratu behar dugu bizitzako alderdi guztietan, eta kirola, zentzu horretan, esparru bat gehiago da. Are gehiago egun hartzen ari den protagonismoa edo pisua ikusita.

“Lehia bai/lehia ez” eta bestelako debate asko daude, zinez interesgarriak, baina egin beharreko zerbait da gure kontrolpeko sozializaziorako espazioak sortzen joatea, gizartearen aldaketa integral bat aurrera eramaten lagunduko dutenak.

Nolabait esatearren oso polita da horretan pentsatzea, baina gaur egun nola ekar dezakegu hori praktikara zehazki? Nondik hasi?

Kirola egiteko forma berriekin esperimentatzen hasi beharko genuke, guk araututakoak, nolabait esatearren. Dinamika berriak sortu beharko genituzke, gimnasio propioak adibidez, zeinetan sarbidea unibertsala izango den, doakoa, baina jendeak bere ekarpena egin beharko duen; lan egin, kirol horren parte aktibo izango den heinean. Mila era daude.

Finean, kirola egitea izango litzateke gakoa, baina guk ezarritako parametro batzuetan. Kalitatezko espazio propioak ireki eta garatzea funtsezkoa da, proletalgoak kalitatezko eskaintza bat izan dezan. Egund, proletalgoa horrelako eskaintzetatik kanporatuta dago, izan ez duelako denborarik edo izan ez daukalako ordaintzeko gaitasunik. Beraz, lehen pausoa da, eredu ideal batean pentsatzen hasi aurretik, benetako azpiegitura bat sortzea, gazteak eta orokorrean pertsonak obsesio eta esfera diskriminatzailearen espiral horretatik atera ahal izateko. Eta, ahal den neurrian, jendea Prozesu Sozialistara batzeko ere bai.


Gure kontrolpeko formak jorratu beharko genituzke, betiere prozesu politiko bati ekarpen bat egiteko asmoz. Kirolak, berezko helburu baino gehiago, langile-klasearen barruko kooperazioa sustatzeko tresna izan beharko luke. Gure bizitzan gaineko kontrola eskuratu behar dugu bizitzako alderdi guztietan

Kirolak, egun, pertsona-eredu konkretu bat sustatzen du gizarte-eredu zehatz batean



Hau da, azpiegitura-oinarri batzuk geureganatu beharko genituzke, eta jendeak beste “arautegi” baten arabera funtzionatuko luke horietan, apurka-apurka, beste balio-sistema bati bide egiteko.

Hori da. Behintzat, aipatutako elementu-sorta erreproduzitzen jarraituko ez duen kirol-eredu bat sortzeko baldintzak jartzea izango litzateke auzia. Kirolak, egun, pertsona-eredu konkretu bat sustatzen du gizarte-eredu zehatz batean. Horri aurre egiteko baldintzak jarriko dituen kirol-eredu bat eraikitzen hasi behar gara. Eta kirola zertarako? Harremantzeko; gure artean, gure buruarekin, naturarekin, baina era osasuntsu batean. ●



Hesi-metalikoak

Testua — **Beñat Astiz**

Irudia — **Manubeltz**

Hesi metalikoak, lan-istripuak, esplotazioa eta miseria Hiri Olinpikoaren eraikuntza-lanetan. Atleta bat azken hesia saltatu ondoren bularra aurrerantz aterata iristen da metara, eta malko batek zeharkatzen dio ezker masaila

Munduko hiri bateko auzo periferiko batera lekualdatu zinen duela urte batzuk. Goizero altxatzen zara ordu berdinean betiko okindegian, betiko okinari, betiko ogia erosteko. (Bueno, akaso behin, medikuak gatzik gabeko ogia gomendatuta hartu zenuen eta geroztik ez zara medikuarenera itzuli). Laster desagertze arriskuan deklaratu da zure espeziea eta bitartean obrak hesi metalikoen beste aldetik behatuz bizitzearekin konformatzen zarete.

Beste egun bat argitu da, altxatu eta okindegira bidean kamioiak, garabiak, aldamioak eta langile taldeak gurutzatu dituzu. Auzokide multzo bat handituz doa eszena guztiaren parean eta airean nahasten dira auzokideen harridura ahotsak eta obrak altxatutako hautsa. Okindegia barruko ilaran zaudela inguruko elkarrizketetan jartzen duzu arreta eta modu nahaspilatu entzuten duzu auzo goiztiar aztoratua. Arratsaldea hesi metalikoaren zirrikituetatik behatzen eman duzu eta auzotik zure espeziekoekin gurutzatzen zarenero da hizketagai hesi metalikoek gordetzen dutena: soldatapeko lana, finean. Are, zure espezieak gordetzen duen gauza bera, ongizate estatu bat eraikitze eta aukera egon zen garai historiko batean egindako lana zehazki.

Gaur okindegitik ogiaz gain, egunkaria ekarri duzu besapean eta Villa Olinpikoaren eraikuntza lanekin hasi direlako berria dakar. Kamioiak, garabiak, aldamioak eta hesi metalikoen barruan lan-istripuak, esplotazioa eta miseria.

Nazionalismoak mastetan, loria eta dirua. Etxeko sofa, *Teledporte*, *Teledporte HD*, garagardo latak eta iruzkingileen txiste eta datu bitxiak. Podiumak, muskulatura, errekorrak, publizitatea eta uztai olinpikoen azpian atleta bat bularra aurrerantz iristen da metara.

Egunen segida amaiezina denetik errutinaren habitata, goizero betiko okindegira zoazela hesi metalikoek ezkututzen duten hori behatzen duzu bi hesiren juntadurak irekitzen duen zirrikitutik, lan-istripuak, esplotazioa eta miseria bezala; telebistan su olinpikoaren planoaren eta iruzkingileak isiltzeak ireki dizun zirrikitu mentalean ikusi dituzu hesi metalikoak.

Hesi metalikoak, lan-istripuak, esplotazioa eta miseria Hiri Olinpikoaren eraikuntza-lanetan. Atleta bat azken hesia saltatu ondoren bularra aurrerantz aterata iristen da metara, eta malko batek zeharkatzen dio ezker masaila. Lurrera bota da, eta eskuak burura altxatu ditu. Lotara joan zara, eta, bihar, goizero bezala betiko okindegira bidean zoazela, ahaztu egingo zaizu hesi metalikoen juntaduraren zirrikitutik behatzea, atleta lurrera botatzen deneko irudia buruan daukazula. Pozik itzuliko zara ogia eta egunkaria besapean. ●

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Olimpiar Jokoak Iragana, oraina eta geroa

*

Imanol Kañamares



JATORRIA ETA GARAPENA

Antzinaroko Olinpiar Jokoek Antzinako Grezian dute jatorria, eta joko horietan greziar polisetako eta kolonietako ordezkariek hartzen zuten parte. Orduko jokoan helburu nagusietako bat polisak gainditzen zituen entitate soziopolitiko amankomun bateko kide sentitzea sustatzea zen. Bistakoa den elementu politikoarekin batera, mitologia eta artea ere presente zeuden; pentatloi klasikoaz gain, musikarien, kantarien eta aktoreen arteko lehiak ere egiten ziren. Jokoetako beste elementu zentral bat *su-eten sakratua* zen, jokoan testuinguruan jardun beliko oro debekatua baitzegoen. Hortaz, jatorriari erreparatuz, elementu artistiko-kulturala gailentzen zitzaion kirolarenari.

Antzinaroko azken jokoak egin eta 1500 urtera, potentzia inperialisten arteko tentsio-igoera testuinguru batean, Pierre de Coubertin baroiari jokoak berrabiaraztea bururatu zitzaion, jokoak une horretarako testuingurura egokituz.

Baroiak sekula ez zuen pentsatu “berrezarritako” Olinpiar Jokoak “bakeari lotutako zeremonia” bat izango zirenik beren horretan, nazio “zibilizatuen” arteko “su-eten sakratu” bat baizik, zeinean nazio zibilizatu horiek denbora tarte batez alde batera utziko zuten mundu mailako nagusitasunaren aldeko borroka, gorazarre egiteko haren iritziz mundua gobernatzen zuen konkista-izpirituari.

1894an Nazioarteko Olinpiar Batzordea sortu zen, eta aro modernoko lehen Olinpiar Jokoak egin ziren Atenasen. Olinpiar Jokoan mugimendu modernoa ez zen herrien arteko borondate onagatik sortu, Mendebaldeko potentzia nagusietako elite aristokratikoen, kapitalisten eta militarren arteko integrazio espiritualerako proiektu gisa baizik. Elkarren artean senidetzen ziren lehengai iturri berriak eskuratzeko, eskulan merkea esplotatzeko eta merkatu berriak konkistatzeko nahiak bultzatuta.

Hehetasun gehiagorekin azalduko dugunez, Jokoan funtzio nagusia ustezko aukera-berdintasunaren (kirol zein gizarte mailan) eta gizarteko desberdinkeria gordinaren arteko kontraesana arintzea izan zen, hau da, gizarte kapitalistako tentsio sozialak kirolaren bidez bideratzea eta geldiaraztea zuten helburu.

SPORT IST KRIEG: KIROLA GERRA DA

Olinpiadak eta geopolitika eskutik lotuta joan dira sortu zirenetik. Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB) mundu mailako agente politiko bihurtu zen hasieratik, eta bere eragin esparrua kirol guztietara hedatu da. Jokoan emankizun-eskubideak, publizitatea eta gainerako jarduerak kontrolatzen ditu, Gutun Olinpikoak ahalbidetuta. Bestalde, lau urtean behin, Olinpiar Jokoan egoitza izango den hiria aukeratzeko ardura du. Gaur egun, munduko kirol-erakunde handien ardatz egituratzailea da, hala nola WADA (Dopinaren Kontrako Munduko Agentzia), ISF (Kirolaren Nazioarteko Federazioa) eta TAS (Kirolaren Arbitraje

Auzitegia) erakundeena. Lehen urteetan finantzazio-arazoak eta oihartzun eskasa izan arren eta Olinpiar Jokoak Nazioarteko Erakusketarekin batera antolatu behar izan bazituzten ere, urteen joanarekin hedadura handiko agente diplomatikoa bilakatu da NOB.

Urte askotan politikatik haratagoko kirol-geografia bat egon izana NOBn boterearen erakusle argia da. “All games, all nations” lelopean, NOBk kirol-geografia propioa garatu zuen, estatu edo nazio bat mundu mailan aitortua izateak dituen inplikazio politikoekin. Adibidez, oihartzuna izan zuen Bohemia (oraindik Austro-Hungariar Inperioaren parte zen) edo Taiwan eta Txinaren aitortzak eta horrek ekarri zituen ondorioak.

1980ko hamarkadatik aurrera, Samaranch frankistak gauzatu zituen bi erreforma garrantzitsuk jokoan norabidea aldatu zuen, eta egun ezagutzen ditugun jokoetarako bidea hartu zen. Batetik, erreforma horien eraginez, parte-hartzaileen amateur izaera ezabatu zen, eta horrek profesionalismoa areagotu eta parte hartzearen maila igo zuen. Bestetik, Jokoan eredu ekonomikoa aldatu zen, eta,

Coubertin baroiak sekula ez zuen pentsatu “berrezarritako” Olinpiar Jokoak “bakeari lotutako zeremonia” bat izango zirenik beren horretan, nazio “zibilizatuen” arteko “su-eten sakratu” bat baizik, zeinetan nazio zibilizatu horiek denbora tarte batez alde batera utziko zuten mundu mailako nagusitasunaren aldeko borroka, gorazarre egiteko haren iritziz mundua gobernatzen zuen konkista-izpirituari

horren eraginez, Jokoen telebistako etekinak handitu ziren beren ekoizpen propio eta eskusiboaren bidez. Batez ere, marketinerako enpresa propio bat eta mundu mailako babesletzarako programak sortu ziren.

Gaur egun, NOBk Behatzaile Iraunkor estatusa du Nazio Batuen Erakundearen (NBE), eta nazioarteko foro eta kongresuetan parte hartzen du. 1992ko itunaz geroztik, NBEk bere kide diren herrialdeei “su-eten sakratua” errespetatzea eskatzen die. Bitxikeria gisa, Parisko 2024ko Jokoan ebazpenak zehazten du su-etena Olinpiar Jokoak baino zazpi egun lehenago hasi behar dela eta Paralinpiar Jokoak bukatu eta zazpi egunera arte iraun behar duela, hau da, 2024ko uztailearen 19an hasi eta irailaren 15era arte. Macronek Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkan su-etena egin zedila iradoki zuen, baina bistakoa da inork ez zuela serio hartu, nahiz eta ebazpen hori NBEen bozkatu zen.

Jokoetan, pisu politiko handiko elementuetako bat egoitza hirien aukeraketa eta horrek dakarrena da. Artikulu honen xedea ez da Jokoen kokaleku izateak dakartzan inplikazioak aztertzea. Ordea, gutxi batzuentzako sekulako negozioa eta herrialdeko langile klasearentzako errepresioa eta espolioa ekartzetik haratago, bada beste funtsezko elementu bat: kirolaren diplomazia.

Olinpiadak arma diplomatiko moduan erabiltzearen adibide klasiko bat 1936an Alemania naziak antolatutako Jokoena da. Naziak propagandarako baliatu zituzten Jokoak, aurretiaz inoiz ikusi ez zen modu batean. Kasu garaikideago bat aipatzearen, 2008ko Txinako jokoak azpimarra daitezke. Potentzia ekonomiko gorakorra, ustez herrialde atzeratua eta munduaren fabrika zena, dena lortzeko prest zegoen mundu mailako potentzia moduan agertu zen denen begietara. Zabaldu egin zen Txina teknologia-, ekonomia- eta kirol-potentzia moduan ikustea, eta inflexio-puntu bat ekarri zuen Txinak munduarekin zituen harremanetan.

Kirola arerio politikoa gainditzeko eta posizioak irabazteko gudu-zelai bat gehiago bailitzan ulertzen hasi zirenez, gero eta garrantzitsuagoak bilakatu ziren domina-zerrendak, eta garai hartan, horrek eztabaida handia sortu zuen eremu sozialistako herrialdeetan. Gaiari jarraikiz, inork ez du gudu honetan atzean geratu nahi izan, eta, hortaz kontziente izanik, dopinari buruzko hainbat estatu-kanpaina egin dira. Ezagunak dira, besteak beste, Alemania Federalekoa, Errusiakoa, Txinakoa edota Espainiakoa, baina, kasu hauetan ohikoa den eran, izebergaren punta baino ez dira, eta, haien atzean, dopin kasuez, eroskeriaz eta mota guztietako iruzurrez osatutako trama bat ezkututzen da, emaitzak faltsutzeko helburua duena. Dena politika da, eta, bestela, galde diezaiotela Mussoliniri; izan ere, 1934an Italian egin zen Munduko Futbol Txapelketako finalaren bezperan, epailea erosi eta mehatxatu zuen, bitartean, bere jokalariei “irabazi ala hil” esaldi ospetsua esaten ziela.

Jokoen funtzio nagusia ustezko aukera-berdintasunaren (kirol zein gizarte mailan) eta gizarteko desberdinkeria gordinaren arteko kontraesana arintzea izan zen, hau da, gizarte kapitalistako tentsio sozialak kirolaren bidez bideratzea eta geldiaraztea zuten helburu

CITIUS, ALTIUS, FORTIUS

Azkarrago, altuago eta indartsuago. Lelo olinpiko horrek –ez da Coubertinek esana, hori uste zabaldua izanagatik– ezin hobeto islatzen du kirol jardunaren eta merkantzia-ekoizpenean, plusbalioaren maximizazioan eta lan-indarraren esplotazioan oinarritutako gizartearen arteko sinbiosi egoera.

Gizarte burgesaren ezarpenarekin batera, gizartearen kiroltze-prozesua garatzen joan da. Ideologia hori Gutun Olinpikoan islatu da, eta, hitzontzikeriaz betea izan arren, funtsean inperialista eta erreazionarioa da, eta haren helburua superpotentzien politika harrapakaria zuzitzea da.

Testuinguru historiko bakoitzak bere berezko forma atletikoak garatu ditu, eta ezinbestekoa da horiek aztertzea kirolaren mugak eta indarguneak ulertzeko, kirola borrokarako eta lanketarako eremu bezala hartuta.

Jolas eta denbora-pasa herritarrak gizakiaren historia guztian zehar egon badira ere, kapitalismoaren garapenak inoiz ez bezalako eraso eragin du aisialdiari eta festari loturiko jarduera mota ororen aurka. Ordura arte, giza komunitateen izatean funtsezko eginkizuna bete zuen kultura fisiko kolektiboaren dimentsio sozial eta ludikoak, eta, kapitalismoarekin batera, inoiz ez bezala eraldatu eta ezabatu da.

Lehen elementu transgresorea zena eta komunitatea erreproduzitzeko balio zuena alienazio elementu bihurtu da. Jada ez dago hausturarik, jarraipena baizik, eta komunitate-elementuak desagertu egin dira. Fenomeno hori, inauteriek eta jaiekin bezalaxe, kirolarekin ere gertatu da; hala, klase herrikoien soziabilitate formak aldatzen doaz.


Behin aurreko antolaketa formetatik zirauten komunitate-loturak deseginda eta parte izateko komunitate erreale baten faltan, kirol-talde edo kirolari batekiko identifikazioa bilatzen hasi zen jendea. Modu horretara, lehia-prestigiao oinarritutako komunitate abstraktu bat sortu da; horrek aurkari bat izatea eskatzen du, eta, azken finean, guztiok guztion aurka gauden gerra bat sortu da, hau da, komunitate erreale baten parte izatea ukatu zaion norbanakoaren berrafirmazio kolektiboa.

Bestalde, komunitarioa eta parte-hartzailea zen kultura fisikotik parte-hartzaileen eta ikusleen arteko zatiketan oinarritzen den beste kultura batera igaro gara pixkanaka, eta horrek ikuskizun-kirolerako edo masa-kirolerako oinarriak ezarri ditu.

Kirol modernoaren ezaugarriak laburtuz gero, zazpi bereiz ditzakegu: sekularitasuna, berdintasuna, espezializazioa, arrazionalizazioa, burokratizazioa, kuantifikazioa eta errekorra. Hain zuzen ere, industrializazio-prozesuan gizartean ezartzen diren ezaugarriak dira, eta duten helburu bakarra ekoizpen prozesua aldatzea da, irabazia handitzera bidean.

Kirolaren kasuan, osagai ludiko eta kolektiboa izatetik kanpo-helburu bat edukitzera igaro da: errekorren bilaketa. Jada ez du aurkari erreale eta konkretu baten aurkako plazera, erronka edo garaipena bilatzen, baizik eta beti haratagoko marka bat haustea da helburua, eta horrek erabateko paradigma aldaketa dakar jarduera fisikoa ulertzeari eta egiteari dagokionez. Aipatu beharra dago prozesu hori guztia ez dela naturalki gertatzen, eta askotan kultura fisiko hori indarrez inposatzen dela.

Brohm pentsalariak kirol modernoaren elementu edo funtzioak definitu zituen. Lehendabiziko funtzioa positibista eta integratzailea da; kirolak, entrenamenduaren bidez, hobekuntza etengabea bultzatzen du, eta elementu hori ekonomia-hazkunde mugagabearekin parekatzen du. Bigarrena meritokrazia da; dauden ezberdintasunak egonik ere, kirolean bultzatzen den ikuskera da ez dagoela klase sozialik eta guztiok hel gaitzkeela aberatsak eta futbolari profesionalak izatera nahikoa saiatuz gero. Hori, ordea, ez dator bat errealtatearekin; ezta hurrik eman ere. Hirugarren funtzioa lan-indarraren heziketa da. Kirola oso eraginkorra da diziplina eta obediencia bultzatzeko eta lanerako baliagarriak diren gaitasunak eskuratzeko, nahiz eta esan behar den aipaturiko diziplina hori beste helburu batzuetarako ere balia daitekeela. Laugarren funtzioa masen entretenimendua da. Bistakoa da "ogia eta zirkua" ez zutela ingelesek asmatu, baina kirolak eta olinpiar ideologiak balio unibertsal gisara izan duten hedapena oso berria da. Bosgarren funtzioa gazteriaren errekrutatzea eta militarizazioa da; hirugarrenarekin estuki lotuta dago, eta, gerra-tentsioak areagotzen ari diren testuinguruetan, gero eta pisu handiagoa hartzen du. Azkenik, funtzio



[...] gutxi batzuentzako sekulako negozioa eta herrialdeko langile klasearentzako errepresioa eta espolioa ekartzetik haratago, bada beste funtsezko elementu bat: kirolaren diplomazia

identitarioa ere garrantzitsua da. Ezinbestekoa da kirolaren eta nazionalismoaren arteko batasuna ulertzea, deriba txobinistak aztertzeke eta internazionalismo proletarioaren alde lan egiteko.

ZER EGIN OLINPIADEN AURREAN?

Olinpiaden sorrera eta funtzioak laburki aztertu ondoren, hausnartu dezagun halako ekitaldien aurrean nola jardun gaitzkeen politikoki. Horretarako, XX. mendean zehar herrialde sozialistetan egondako posizioak aztertzea interesgarria da. Zentzu horretan, atal hau hiru zatitan banatu dut: agitazioarako esparrua; boikota eta langile-kirola; eta eztabaidarako zenbait elementu.

Agitazioarako esparrua

Lehen puntua oso sinplea da: Olinpiar Jokoak munduko ekitaldirik ikusiena dira, izan *in situ*, izan online. Errepresioa eta kontrol soziala ikaragarriak dira, baina ezinbestekoa da halako espazioetan ekintzak gauzatzea. Horretarako, beharrezkoa da gaitasun teknikoak, organizatiboak eta irudimenezkoak handitzea. Izugarria izan daiteke zenbaterainoko oihartzuna izan dezaketen propaganda- eta desobediencia-ekintzek eta ekintza zuzenek.

Bestalde, kirolariek eurek egindako ekintzak historiara igaro dira, hala nola Tommie Smith eta John Carlos kirolariek Estatu Batuetako arrazismoaren kontra protesta eginez ukabila altxata duten argazki famatua.



[...] kapitalismoaren garapenak inoiz ez bezalako eraso eragin du aisialdiari eta festari loturiko jarduera mota ororen aurka. Ordura arte, giza komunitateen izatean funtsezko eginkizuna bete zuen kultura fisiko kolektiboaren dimentsio sozial eta ludikoak, eta, kapitalismoarekin batera, inoiz ez bezala eraldatu eta ezabatu da

Boikota eta langile-kirola

Olinpiar Jokoetan parte hartu ala boikot egin. XX. mendeko herrialde sozialistetan nagusitasuna hartu zuen eztabaidetako bat izan zen hori. Gerra Handiaren ondorengo urteetan, “langile-kirolaren” goraldia izan zen, eta Langile Olinpiadak eta Espartakiadak antolatu ziren. Lehen Langile Olinpiada ofiziala 1925ean antolatu zen Frankfurtan, “Gerra gehiagorik ez” lelopean eta Coubertinekiko eta NOBrekiko. Bigarrena “Viena Gorrian” antolatu zen 1931n, eta 26 naziotako 85.000 kirolari eta 250.000 ikusle bildu zituen. Ekimenaren dimentsio politikoa uler dezagun, zifra horiek aise gainditu zituzten hurrengo urtean Los Angelesen egin ziren Olinpiar Jokoetakoak. Azkenik, 1936ko Olinpiar Joko naziei boikot eginez, Bartzelonako Herri Olinpiadak antolatu ziren, baina Gerra Zibila hastean bertan behera geratu ziren. 200 kirolari baino gehiago batu ziren milizia antifaxistetara.

Hortaz, XX. mendearen lehen erdian, boikot egin zitzaion kirol burgesari eta nolabaiteko langile-kontrabotere baten alde egin zen Langile Olinpiaden bidez. Olinpiada horietan, kirolariek ez zuten beren nazioa ordezkatzeko eta Internazionalak eta bandera gorriak ordezkatzeko zituen langile guztiak. Helburua nazioarteko langile-klasearen arteko lankidetzaren sustatzea zen.

Hala ere, SESBek, 1948ko Jokoei ezezkoa esan ostean, 1952ko Helsinkiko Olinpiar Jokoetan lehen aldiz hartu zuen parte, eta lehen postua irabazi zuen. Urteetan zehar alternatiba baten alde jardun ondoren, Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistak munduaren aurrean Olinpiar Jokoak ere irabazteko gai zen potentzia baten moduan agertzea erabaki zuen. Barne-egoerak eta testuinguru geopolitikoak ere pisu ikaragarria izan zuten aldaketa horretan, noski.

Eztabaidarako zenbait elementu

Urriko Iraultzaren ondorengo lehen urteak izan ziren emankorrenak politika egiteko forma berriak sortzeari dagokionez. Horixe ikus dezakegu hezkuntzaren, ekonomia sozialista antolatzearen eta, nola ez, kirolaren eta jarduera fisikoaren esparruan ere.

Kirola legezko eskubide bat zen, eta sobietek haren garapenerako baldintza tekniko eta ekonomikoak sortu behar zituzten. Jarduera fisikoaren kontzeptua eta osasuna estuki loturik zeuden eta helburu zuen gaitasun fisikoaren, teknikoaren, intelektuaren eta militarren garapena. Baina, horretaz gain, ikuskera horretan, alderdi ludikoa azpimarratzen zen, eta modu kolektiboan gauzatutako lana lehenesten.

Olinpiar Jokoen inguruko eztabaida hutsetik haratago, erabat premiazkoak dira jarduera fisikoaren eta kirolaren inguruko eztabaidak eta ikerketak. Funtsezkoa da osasunaren, sozializazioaren, masen hezkuntzaren eta gaitasun iraultzaileak eskuratzearen ikuspegitik. Testuan zehar aipatu bezala, komunitate-loturak lehertu egin dituzte, eta premiazkoa da balio antagonikoetan oinarritutako sozializazio- eta borroka-espazioak sortzea.

Horrek ez du esan nahi inguruan ikusten ditugun jarduerak modu akritikoan erreproduzitu eta bestelako itxura bat eman behar diegunik, baizik eta egon diren esperientziak (Proletkult, Jungpioniere, Espartakiadak...) eta klase herrikoiek historian zehar izandako denborapasak aztertu, eta egungo beharrak modu kolektiboan aseko dituzten proposamenak egin behar ditugula, borroka-komunitatea bateratzeko eta sozialismoaren garapenerako baldintzak sortzeko balioko dutenak. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Brohm, Jean-Marie (1982). *Sociologie politique du sport*.

[2] Corriente, Federico eta Montero, Jorge (2011). *Citius, altius, fortius*. Kirolaren liburu beltza.

[3] Tapia, Mikel (2010). *Deporte y Socialismo*.

XX. mendearen lehen erdian, boikot egin zitzaion kirol burgesari eta nolabaiteko langile-kontrabotere baten alde egin zen Langile Olinpiaden bidez. Olinpiada horietan, kirolariek ez zuten beren nazioa ordezkatzeko eta Internazionalak eta bandera gorriak ordezkatzeko zituen langile guztiak. Helburua nazioarteko langile-klasearen arteko lankidetzaren sustatzea zen





Argitalpena

2024KO UZTAILA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua

**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web

GEDAR.EUS

Sare sozialak

TWITTER ETA
INSTAGRAM

@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua

**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza

**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa

**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**

AZPEITIA

Lege gordailua

SS-01360-2019

ISSN

2792-4548

Lizentzia



arteka